




aikor! txorierriko aldizkaria

200 ale

ZELAN?

POSTAZ:

Aikor!lagun fitxa(*) bete eta bidali:
Aresti, 2 behea - 48170 - Zamudio

E-POSTAZ:

aikortxori@aikor.com helbidera

TELEFONOZ:

94 452 34 47
688 86 41 35

AHOZ:

Zure herriko euskara
elkarteko kideren bati esan

(*) Fitxa aldizkarian bertan eta
erakundeetan, liburategietan,
komertzioetan... utziko ditugun
diptikoetan topatuko duzue.



Egin zaitez Aikor!lagun

Etxe bat, lagun bat



Egin zaitez Aikor!lagun



Izen-abizenak: _____

Helbidea: _____

Telefonoa: _____

e-posta: _____

IBAN+Bankuko zenbakiak: _____

Urteko kuota: _____

Aldizkaria jasotzen duzu? _____

Sinadura _____

30 euro _____ Beste bat _____


Orri hau helbide honetara bidali:

Aikor! Aldizkaria

Aresti kalea 2, behea - 48170 - Zamudio



15/1999 Lege Organikoari jarraituz, hau jakinarazten dizugu: formulario honetan sartzen dituzun datu pertsonalak fitxategi batean gordeko dira. Fitxategiaren erantzulea TOTOKAN TXORIERREKO EUSKARA ELKARTEEN FEDERAZIOA da eta datuok kudeatuko ditu. Kontrakoa esaten ez diguzun bitartean, zure datuak kudeatzeko baimena dugula ulertuko dugu. Dena dela, edozein momentutan datuok eskuratu, baliogabetu eta zuzendu ahaliko dituzu. Horretarako, helbide honetara jo beharko duzu: ARESTI KALEA 2-BHEA, 48170 ZAMUDIO (Bizkaia).

-  **4** Eritxiak
-  **6** Laburrak eta albisteak
-  **11** Irudietan... Arkaitz Meabe, ehiztaria
-  **12** Baserri mundua... Gurbide komunitatea
-  **14** Gaztea eta... Izaro Ungo, boxeolaria
-  **16** Txorierriko Zerbitzuen Mankomunitatea
-  **18** Martxoaren 8a
-  **20** Gain nagusia... 200 ale
-  **26** Sondikako Inauteriak
-  **28** Zamudioko ermitak iluntasunean
-  **30** Adimena Agertokian egitasmoa, BANen
-  **32** Luis Vazquez, borroka-arteen irakaslea
-  **34** Izpiluan... Jo... Jaioharri emozionalak
-  **35** Aikorrizketa... Erpurua eta txikilina
-  **36** Sukaldaritza
-  **37** Denborapasa
-  **38** Agenda



18 Martxoaren 8a



26 Sondikako Inauteriak



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA



Bizkaiko Foru
Aldundia
Diputación
Foral de Bizkaia



diruz lagundutako aldizkaria



Argitaratzailea: TOTOAN, Txorierriko Euskara Elkarteen Federazioa (Lagatzu, Zorritzetan, Arrekikili, Tximintx komunitatea eta Altzora)
Tel.: 94 452 34 47 / 688 86 41 35
aikortxori@aikor.com /
www.aikor.eus



Zuzendaria: Xabier Goienetxe

Erredakzio burua: Itxaso Marina

Erredakzio taldea: Maite Lekerika, Gaizka Eguzkitza, Juan Luis Goikoetxea

Kolaboratzaileak: Iñaki Eguskizaga, Udane Goikoetxea, Alex Albarrán, Eider Larrabetti, Jose Angel Mentxaka, Jon Goikouria Larrabetti, Idoia Andres eta Itallen bertso eskola

Zuzentzaileak: Joseba Butroe, Iñaki Astorkiza eta Jagoba Zallo

Publizitatea: Arantza Atxutegi (686 58 92 38)

Banaketa: Egunon

Maketatzailea: Gaizka Eguzkitza

Inprimategia: Gertu

Ale kopurua: 8.000

Lege gordailua: BI 137-02 ISSN 1578-9322

Aikor! aldizkariak ez dau bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen edota eritxien erantzukizunik.

Abuztuaren 3an, Konakrytik etorren Boeing 747-a 6:15ean lurreratu zan Brusela-Zaventem aireportuan. Bi-daiariak eskaileretatik jaisten ziran bitartean, hegazkina aztertzen eban teknikariak ezker aldeko lurreratze-treanean hiru atzamar nabaritu ebazan. Barruan, makurtuta, kamiseta, praka laburrak eta sandaliak jantzita, Fode Toure Keita eta Alacine Keita, 15 eta 14 urteko nerabe baltz ahulen hilotzak egozan, izu-aurpegi petrifikatuagaz. Abioi horreek 9.000 eta 11.000 metro tarteko altueran hegaz egiten dabe eta hortan tenperatura -50 gradukoa izaten da.

Foderen kamisetaren boltsikoan arretaz tolestutako orri baten honako mezu hau topau eben: «Zuek ikusten badozue sakrifika-tzen garela eta gure bizitza arriskuan jarten dogula, Afrikan danok sufritzen dogulako da; eta behar zaituegu pobreziaren aurka borrokatzeko eta Afrikan gudak desagerrarazoteko. Guk, halanda be, ikasi gura dogu eta ikasteko laguntza eskatzen deusuegu, Afrikan zuek bezalakok izateko. Amaitzeko, barkamena eskatzen deusuegu gutun

Paradisura

hau idaztera ausartu izanagaitik, zuek asko errespetatzen doguzan oso persona garrantzitsuak zarielako guretzat. Baina ez ahaztu zuengana jo behar dogula kexatzeko, gure indarraren ahultasunagaitik Afrikan».

Ginea munduko hamar herririk txiroenen artean dago, nahiz eta bertan munduko bauxita-erreserbarik handiena, urrea, diamanteak, burdin meatzak, aziendarako eta nekazaritzarako lur egokiak eta arrain ugari dagozan. Baina zelan da posible hori? Arrazoi batzuen artean, meatzen ustiaketa multinazionalen kontrolpean dagoalako eta esportazinarako zergek, baxuak izanik, ez dabelako ia etekinik itxiten.

Beste aldetik, emondako maileguaren truke, Nazioarteko Diru Funtsak Gineari merkatuaren liberalizazioa inposatu eutsan. Horrek ekarri eban abeltzaintzan, adibidez, oso jarduera garrantzitsua izanda, Estatuak arrazoizko prezioan saltzen



IÑAKI EGUSKIZAGA
Abokatu erretiradua

ebazan abereentzako botiken biltegia eta kontrolak haustea. Hori dala eta, multinazionalak eta odol-xurgatzaileak berehala sartu ziran prezioen gorakadea bultzatuz, azienda txiki eta ertain askoren desagertzea ekarri eta ekoizle handien okelaren prezioa herritar gehienentzat eskuraezina bihurtuz.

la paradisua izan eitekean herrian, gosez hiltea edo paradisua ez diran herrieta-bidean hiltea da afrikar askoren adua.



UDANE GOIKOETXEA
Kazetaria

Thuban egon badago

bertso bateri. Bada, mundua erretzen dagoan honetan gatz egiten jaku hainbestetan kantatu jakon esperantza horri eustea; ez dago markesik ez alabarik honeri eusteko gai danik eta.

-Zeruak eta lurak lainopean ditugu- dino Thunberg gazteak munduari hariduraz begiraturik. Ozen esan dau grisa dala etorkizun ez hain urrunekoa, 2030garren urtea aitatzuz, Apokálypsis berba grekoa bere eginez. Izan be, 2,5 milioi hektarea erre ziran Amazonian; 8 milioi, Australian (Euskal Herria balitz, desgertuta legoke). Edonora begiradea bihurturik plastikoak agiri dira nongura, airea ez da garbia... Artikoa urturik, itsasoa lurra hartuz doala entzuten dogu edozein albistegitan.

Grisa ei da etorkizun ez hain urrunekoa. Berdea zan, oster, egiptoarren Osiris jainkoaren azalaren kolorea: esperantzarena, landaredia berbiziaren ikur eran. Hareek be lurretik zeruetara begira egin zituen Piramide handiak. Urtea hasi eta batera esan deuskue astronomoek Thuban izeneko izarra -egiptoarrontzat iparraldeko izarra- izar bikotea dala, alkar eklipsatzen dabena. Inoiz bata bestea guztiz estaltzen ez dauan arren, gure begietarako ikusiezina dira. Oraitu itaundu deusku Angela Kochoska ikerlariak: "Zelan ez gara jaubetu orain arte?". Klimak aldatzen dihardu. Eklipsaturik gaukaz egunerokoak. Zeren distirak ez deusku izten hori ikusten, mundua zaintzen? Thuban egon badago.

«**Z**eruak eta lurak egin dituan / memoria argitzera zatoz niregana / esperantza badaukat zero-
rrek emana...». Sebero Iturrino mutrikuarrak holan emon eutson hasiarea sorta luzeko

Alaia
fruta-denda
Etkez etxeko zerbitzua
Bertoko produktuak
Telleri, 5
48170 Zamudio
94 481 05 85

HARATEGIA
ALBERTO
Arbolantxa, 4
T: 94 452 08 25
48170 ZAMUDIO

ama
taberna
Leizaola plaza, 7 - behea (ZAMUDIO)
94 655 93 69

Zorionak Gure Señeak elkarteari!

Gure Señeak irabazteko asmorik gabeko elkarteak 10 urte beti ditu aurten eta hori ospatzeko hainbat ekintza antolatu ditu. Lehenengoa otsailaren 19an egin zen Derioko Kultur Birikan. "Oso hunkigarria eta polita izan zen. Berrehun pertsona inguru batu ginen ekitaldian eta izugarrizko giroa egon zen. Kultur Birika leporaino zegoen! Oso pozik gaude", esan dute elkartekideek.

Gure Señeak elkarteaz gain, beste 33 erakundek osatzen dute Bizipoza elkarte, eta Derion egindako ekitaldian hari buruzko dokumentala estreinatu zen. Gainera, "Gure Señeak, 10 urte aukera baten bila" erakusketa ere ipini zen ikusgai. Erakusketa martxoaren 1era arte izango da. Ekitaldian parte hartu zuten lagunen artean hauek izan ziren: Esther Apraiz Derioko alkatea, Ortz Garitano eta Aitor Arrizubieta Toko bertsolariak eta Gaizka Garitano eta Ane Azkona Athleticen kideak.

Bestalde, hilaren 23an elkartearen eguna ospatu zuten eta haren barruan Kepa eta Arene neba-arreben oroimenezko lasterketa egin zen. Martxoaren 1ean, Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazoek Bizi Dantza ikuskizuna eskainiko dute Derioko kiroldegian, 12:00etan, Lainomendi dantza taldearen laguntzarekin.



a: Gure Señeak



2020ko otsailaren 20a gogoan izateko data izango da Larrabetzun, egun horretan Memoriaren interpretazio-zentroa aurkeztu baitzen jendaurrean. Zentroa Anguleri Jauregian atondu da. Aretoak L-itxura du, eta guztira 100 metro kuadro. Bisitariek ibilbide antzeko bat egin dezaten, panelak ipini dira eta, besteak beste, gerraren aurreko eta osteko urtekoak nolakoak izan ziren ezagutu ahalko da. Gainera, herrian zein inguruko mendietan topatuko aztarnak jarriko dira ikusgai. "Erakusketa ez da gerrarik, armarik edo bonbarik azalduko, sentipenak baizik", adierazi du Iñigo Gaztelu alkateak. Bestalde, Karraderan elkartea gerra bizi zutenen

Memoriaren zentroa aurkeztu da Larrabetzun

testigantzak jasotzen ibili da, eta horien bideoak ikusgai jarriko dira telebista batean.

"Azken 10 urteotan, hainbat ekintza egin dira herrian, memoria historikoa berreskuratzeko. Hori dela eta, gune finko bat atontzea pentsatu genuen. Prozesu parte-hartzaile bat eratu genuen eta Stoa enpresa kataluniarrarekin ipini ginen harremanetan, memoria historikoari

eusteko guneak diseinatzeko esperientzia dutelako, adibidez, Elgetan eta Gernikan. Dena dela, lanean jarraituko dugu eta interpretazio-zentroa ez da amaiera izango, abiapuntua baizik".

Bestetik, martxoaren 2tik 13ra bitartean, "Gogoan hartzeko izenak" erakusketa izango da Anguleri Kultur Etxean. Martxoaren 2an, bisita gidatua egingo da 19:00etan.

AmAr
ileapaindegia

Astearte-ostiralea:
9:00-19:00
Laburumbata:
8:00-13:30

Uribe plaza, 1 beheko
Zamudio
94 4520419

Txinbo kalea, 9
48170 ZAMUDIO
94 452 26 75

BIDE-GORRI

Askotariko pintxoak - Plater konbinatuak
8:00etatik irekia
WIFI gunea

Carrefour
express

ORDUTEGIA
Astelehenetik ostiralera arte
9:00-14:30 / 17:00-20:30
Larunbatean
9:00-14:30

Pago kalea, 5
48170 ZAMUDIO



Sondikako aurrekontuak ia % 3 handitu dira

Sondikak 5.473.410 euroko aurrekontuak onartu ditu 2020. urterako; iaz baino % 2,76 gehiago. Udalak jakinarazi duenez, aurrekontuek ardatz nagusi bi dituzte: gizarte-inbertsioak eta udal-instalazioak eta azpiegiturak hobetzea. Gizarte-zerbitzuei dagokienez, udalak % 6 handituko du Mankomunitateari egiten dion ekarpena eta, hortaz, 160.000 euro baino gehiago emango dio. Era berean, ia 60.000 euro bideratuko ditu Behargintzara prestakuntza eta enplegua sustatzeko, eta 10.000 euro zuzenduko ditu herriko merkataritza bultzatzeko kanpaina bat egitera. Bestalde, euskararako eta berdintasunerako diru-partida 100.000 eurokoa izango da.

Auzotako eta hiriko azpiegiturak hobetzeko, 62.000 euro inbertituko dira; 20.000 euro, gaztetxean; 45.000 euro, erretiratuaren klubean eta liburutegian; 13.000 euro, futbol-zelaian; eta 20.000 euro, eskolan. Azkenik, 30.000 euro erabiliko dira irisgarritasuna hobetzeko.

Kurtzeko geltokiko trenbide gaineke igarobidea zabalduta

a: www.ets-rfv.euskadi.eus

Eusko Trenbide Sareak (ETS) hil hone-tan zabaldu du Kurtzeko geltokiko trenbide gaineke oinezkoentzako igarobidea Lezaman. Orain arte geltokiaren kanpoal-detik zihoan lur azpiko igarobidea baino ez da egon, eta, irisgarritasuna hobetzeaz gainera, azpiegitura berriari esker, sarbide zuzena egongo da nasa biren artean. Igarobidea ez ezik igogailuak ere aurreikusi ziren Kurtzeko geltokiaren lanetan; ETSk jakinarazi duenez, igogailuak martxoaren amaieran ipintzea espero dute.

Lanei dagokienez, lurak hondeatu dira igogailuen behealdeko zuloak egiteko eta hobiaren euste-hormak eta zimen-

datzeak eraikitzeak. Bestalde, igogailu panoramikoek zortzi lagunentzako lekua (630 kg) izango dute, telefono bidezko konexioa eta bideozaintza-sistema. Igogailuen ondoko eskailerak 12 metro luze den igarobideak lotzen ditu. Horrela lortzen da "trenbideak gaintitzea eta nasa biak geltokiaren kanpoal-detik modu irisgarrian lotzea. Auzotarren mugikortasuna ere hobetzen da", azaldu dute. Igarobidea gauez argiztatuko da. Lehen zegoen lur azpiko pasabidea puntu beltza zen eta, gainera, mugikortasun urria duten pertsonak ez zuten erabiltzen. Hura kentzeko, betelanak egin dira. Lanek 446.000 euroko aurrekontua izan dute.



IRATXO
gaztegia
larta pertsonalizatuak
trufak
tailak
pastelak
pastak
Mikel Zurro, 2 - 3. leña • Sondika, 48150 • 94 945 89 39

auzoKide
Finken administratzailea
LORENA GAMBOA AGUIRRE
Txorisolo 4, behea B
48150 SONDIKA
634 410 470
auzokidefincas@gmail.com

LIBURUDENDA PAPERDENDA
ZAMUDIO
EGUNEROKO PRENTSA, SALGAI
Gorbea kalea, 5
48170 ZAMUDIO
Tlf. / Faxa:
94 452 29 10

GALAISA
Estetika eta ile-apaindegia
94 453 04 85 - 94 471 10 51
Elegabeko ordutegia
Sabino Arana 1-3, SONDIKA

Goiri'78 s.l.
Zerbitzu ofiziala
Izarza Pol.
48150 Sondika
Bizkaia
94 453 25 15
94 453 39 31

Iz
ile-apaindegia
estetika
Txantxangorri, 2
ZAMUDIO
946 036 943

Apirilaren 14an amaituko da Aireportuaren Plan Zuzentzaileari alegazioak aurkezteko epea



Agenda Ministerioaren menpe dagoena-jendaurrean jarri ditu Iraunkortasunaren Txostena eta Bilboko Aireportuaren Plan Zuzentzailea berrikusteko proposamena. Herritarrek eta erakundeek apirilaren 14ra arte aurkeztu ahalko dituzte alegazioak. Proposamena Gobernuaren Bizkaiko Ordezkariordeztan (Bilbo) eta www.mitma.gob.es/el-ministerio/buscador-participacion-publica webgunean kontsultatu daitezke.

Ezetz gauez lan egiteari

Bestetik, AENAK Eurokopan gauez lan egiteko proposamena egin die langileei, eta horiek proposamena botatu dute. Botazioan galdeketara deituta zeuden langileen % 75ek hartu dute parte, eta ia % 96k kontrako botoa eman dute.

Enpresa-batzordearen ustez, zuzendaritzak ez du proposamena justifikatzen duen daturik eman, eta eragina izan zezakeen langileen lan-baldintzetan. Bestalde, aireportua gauean zabaltzea gizartearen pil-pilean dagoen eztabaida da, eta pentsatzen dute aurrekaria ezarri ahalko lukeela. Gainera, gogora ekarri dute Forondako aireportua 24 orduan dagoela zabalik, eta, haien iritziz, Eurokopa antolatzeako orduan, UEFAk Bilboko eta Gasteizko aireportuen arteko osagarritasuna onartu zuen.

Plan Zuzentzailean jaso denez, Bilboko Aireportuak terminala handitzeko asmoa du, hegaldi gehiago hartzeko. Besteak beste, planak egitasmo hauek aurreikusi ditu: aireontziak aparkatzeko plataforma handitzea, gaur egungo terminala birmoldatzea eta handitzea, bidaiarientzako aparkalekuak handitzea, bloke teknikoko eraikin berria egitea langileen-tzat, aire-kargako eremua aireportuaren

iparraldera eramatea, aireportuaren hegoaldea berrantolatzea hegazkintza orokorreko eta exekutiboko bidaiarientzat eta zentral elektrikoa eta erregaien eremua handitzea. Egitasmoek eragina izango lituzkete hurrengo udalerrri haue-tan: Derio, Erandio, Loiu, Sondika eta Zamudio.

Abiazio Zibileko Zuzendaritza Nagusiak –Garraio, Mugikortasun eta Hiri

XURREGOITI JATETXEA
Laurgoia etorbidea, 27
48180 Lolu-Bizkaia
T-Faxa: 94 453 24 40
restauranteauregoiti.com

elekma
LURPATZEREN BAT DUTEN ETXETRESNA ELEKTRIKO BERRAK
TELEBISTAK ETA ETXETRESNA ELEKTRIKO TUKAK
Lehenengo markak • Piezirik onenak
BOSCH, SIEMENS, BALAY

Troianari etorbidea, 25-3 N • 48180 Lolu
T: 944 539 232
www.elekma.es

Peñasko
arraindegia

Mendiko, 4
48170 Zamudio
Tel.: 94 452 0808

GORBEIA MERTZERIA

Gorbeia kalea, 7
ZAMUDIO
94 655 90 06

Hortz-klinika
IDOIA ZUBIETA

Osasun-zentroa & Hortz-estetika
HORTZ-INPLANTEAK - ESTETIKA-ORTODONTZIA

Airelitz doktorea, 11.-1. edk.
48011 BILBAO
T: 944 416 322

Urbe Plaza, 1
48170 ZAMUDIO
T: 944 521 370

PATXI
KOOP

PATXI KOOPERATIBA ELKARTEA
Nabizteko gunea - Troianari 4, 48170 Zamudio (Bizkaia) - Tel: 944 522 057 - info@patxi.coop - www.patxi.coop

Deriok 9,3 milioi euroko aurrekontua onartu du 2020rako

Zehatz-mehatz, 9.345.761 euroko aurrekontua onartu da, aurreko urtean baino 1,3 milioi euro gehiago (% 16, 69ko igoera). Udalak azaldu duenez, igoera batez ere Aldekone sektorean lursail bat milioi bat euroan saltzea aurreikuspen delako da. Aurreikuspen hori gabe, igoera % 4,20koa da.

Jakinarazitakoaren arabera, 1.203.600 euro bideratuko dira hainbat egitasmotara. Besteak beste, 37.500 euro zuzenduko dira eskolaren atzean aparkaleku bat egiteko proiektua idaztera; diru-partida hori ere erabiliko da aparkalekuak handitzeko – Gernikako Arbolakoa kasu – eta eskolaren inguruan aparkaleku espres bat atontzea aztertzeke. Udalak 300.000 euro ipiniko ditu Hiri Antolamenduko Plan Orokorra egiteko, eta 100.000 euro bideratuko ditu hainbat txokotan LED argiak jartzera. Halaber, ibilgailu elektrikoak kargatzeko gune bat pintzeko asmoa du (8.500 euro) eta inbertsioak egingo ditu hezkuntza-erakinetan (27.000 euro) eta aisialdiari lotutako erakinetan (24.200 euro). Azpiegitura berriak atontzeko eta daudenak hobetzeko inbertsioak ere egingo ditu: Herriko plaza (33.000 euro), Uribe Parkeko komunak (50.000 euro) eta nagusientzako zirkuituak eta haurrentzako guneak (66.000 euro). Bestetik, lan hauek egingo dira aurten: Uribe eta Ganbe kaleetan trafikoak sortzen dituen arazoak konpontzeko neurriak betearaztea (125.000 euro), Uribe Parkean estalkia jartzea (156.000 euro), Euskal Herria 4-6 – Correos (113.000 euro) eta Unbe Kaleko II. Fasea (245.000 euro). DUK (Derioko Udal Kiroldegia) erakunde autonomoari dagokionez, 1.135.565 euroko aurrekontua onartu da: 537.565 euro bazkideen diru-ekarpenen bidez finantzatuko da eta gainerakoa udalak ipiniko du.

Alegazioa Silicatos de Malpica enpresa handitzeari

Lezama Bizirik elkarteak jakinarazi duenez, Silicatos de Malpica enpresa kimikoak (FMC Foret, lehen) herrian duen lantegia handitzeko izapideak hasi ditu. Enpresak labe berri bat eta beste instalazio batzuk ipini nahi ditu eta, ondorioz, "ekoizpena bikoiztu ahal izango du". Horregatik kezkatuta azaldu dira: "Jarduerak eragin esanguratsuak ditu ingurumeneari gaur egun, eta lantegia handitzeak horiek proportzionalki handitzea ekarriko du: kutsadura atmosferikoa, industria-likidoak isurtzea, zarata, bibrazioak, energia-konsumo handia...".

Lezama Bizirik elkarteak esandakoa- ren arabera, enpresak berak jakinarazi du 2018an atmosferara 32.000 tona CO2 baino gehiago isuri zutela. Talde lezamarren ustez, ekoizpena handitzen bada, emisioa ere handituko da. Gainera, azaldu dute enpresak aurreikusi duela isuri likidoak % 70 handituko direla, hau da, 11.300 metro kubikotik 19.240 metro kubikora, eta azken bolumen hori isuri ahal izateko baimena eskatuko duela. Bestalde, esan dute enpresaren jardueraren on-

dorioak enpresak berak aztertzen dituela hiru urterik behin, hori administrazioak egin beharrean.

Elkartearen iritziz, administrazioak enpresa handitzeko baimena emango du, ziur asko. "Eragin garrantzitsuak aitoritu ditu; hala ere, kontrolatzen badira eta neurri zuzentzaileak hartzen badira, "bateragarriak" direla uste du. Baina nork kontrolatzen du?". Horren harira, Zaldibarreko zabortegia ekarri dute gogora. Hori guztia kontuan hartuta, alegazioaren bidez, Lezamako elkarteak eskatu du ingurumen-administrazioak enpresaren jardura zuzenean eta etengabe kontrolatzeko eta neurri zuzentzaileak ere ikuskatu ditzala. Horrezaz gainera, adierazi dute Lezamako Udalean zein URA agentzian ekimenak aurkeztuko dituztela, horiek ere erantzukizuna bete dezaten. "Baita Kurtzeko industrialdea urbanizatzeko eta poligono arteko errepidea eraikitzeke hartu zituzten konpromisoak bete ditzaten ere". Esan dutenez, Angetu inguruan egindako kaltea oraindik ez da konpondu eta, gainera, nabarmen hondatu da.



sarraila-denda Txorierri
ADITUAK SARRAILAGINTZAN ETA SEGURTASUNEAN

948 038 663
625 100 800
info@centrotxorierri.com
www.centrotxorierri.com

Alain Pomposo Zarate
Unkiola, 4. lorja
48160 Derio

TXORIERRI Inmobiliaria
Justo Ajuria, 2. Sondika - Bizkaia
Tel./Faxa: 94 471 12 82 - 94 471 18 11
txori-erri@euskalnet.net

areagandik gertu

ABOKU-ARITZA - TASAZIOA
ALOKATZEAK - ENKE ALBATZEAK
SALEROKETAK
SEGUROS BILBAOEN AGENTZIA

Lzpilen
PARAFARMAZIA BELAR-DENDA

Sabino Arana, 3. lorja - 48150 SONDIKA (Bizkaia)
94 655 80 00 - 689 99 88 43 - lzpilen@gmail.com



Txorierri Institutuko ikasle ohien bila dabilta

Facebook gizarte-sarean Txorierri Institutua Ikasle Ohiak / Ex-alumnos Instituto Txorierri taldea zabaldu da. Taldea Txaber Saiz Erostarbe larrabetsuarrak, Nahia Fernandez de Mendiola Zabala bilbotarrak eta Ines van Herckenrode Guerrero leiozarrak ipini dute martxan, eta institutuko ahalik eta ikasle ohi gehien biltzea du helburu.

“Institutuko zuzendariak ikasle ohiak batu nahi ditu eta guri eman digu hori egiteko ardura. Asmoa da etorkizunean zenbait ekintza egitea eta ikasle ohiak horietan parte hartu dezatela”, azaldu digute. Talde irekia da eta edonork eman dezake izena. Gazteek taldean lagun asko batzea espero dute. Gainera, beste bide batzuk ere erabiliko dituzte egitasmoaren berri emateko, hala nola kartelak, ahoz ahokoa eta Instagram gizarte-sarea.

Gazteak LEINN gradua ikasten dabilta Mondragon Unibertsitatean. Kontatu digutenez, gradu horrek lidergoa, ekintzailetza eta berrikuntza ditu ardaztat eta, oinarritzko ikasgai batzuk izan ezik, ekinaren ekinez eta proiektuetatik ikasten dute. Horri lotuta, besteak beste, taldearen jardunaldiak antolatu dituzte eta merkatu-azterketa egin dute. Txorierri Institutuko ikasle ohiak batzeko egitasmoaz gainera, Union proiektuan dabilta buru-belarri. Proiektu horrek gazteei orientabide akademikoa ematea du helburu. Bestalde, laster ingurumenaren aldeko lasterketa solidario bat antolatzeko asmoa dute. “Ekintzak antolatzeak motibatzen gaitu gehien. Ideia da ikasketak amaitzen ditugunerako gure enpresa sortuta izatea. Gaur egun, 17 lagunok gaude lantaldean –Legit enpresa– eta bakoitzak gehien gusatzatzen zaizkion proiektuak jorratzen ditu”.

Larrabetsuk ia 150.000 euro bideratuko ditu dirulaguntzetara

Zehatz-mehatz, 154.850 euro izango dira, iaz baino % 6 gehiago. Dirulaguntzak gizatalde eta egitasmo hauetara zuzenduko dira: beharizan ekonomikoak dituzten familiak, putzu septikoen garbiketa, kirol- eta kultura-elkarteak, euskara eta alde zaharretik kanpo dauden eraikinetan egiten diren terminen kontrako tratamenduak.

Horrezaz gainera, 2020. urtean Larrabetsuko Udalak beste dirulaguntza batzuk banatuko ditu, besteak beste, herriko jaietarako, nazioarteko garapen-proiektuetarako, euskal jaietarako, konpostajetarako eta jubilatuen etxerako. Dirulaguntzak eskatzeko epea zabalik dago.



Txarriboda-bertso afaria, Lauroetan

Aurregoiti jatetxean egingo da otsailaren 28an, 21:00etan. Bertan, Xabi Paia eta Andoni Egaña bertsolariak ibiliko dira bat-batean. Txarriboda-bertso afariak 27 euro balio du eta txartelak erosteko, telefono-zenbaki hauetako batera deitu daiteke: 649 497 147 (Iñaki), 944 533 786 (Juanxu) eta 944 532 440 (jatetxea).

ERREKA
JAT
ETXEA
ONDO

Eguneko menua, asteburuko menu berezia, karta, enpresen bazkariak, jauntzeak, familiaren bazkariak

Arteaga, 80
Zamudio 48170 (Bizkaia)
Tfnoa.: 94 452 14 19
Faxa: 94 452 26 29

OPTIKA IKUSLAN

Arbolantxa kalea, 5, behea
ZAMUDIO
Tel.: 94 452 28 18

OAKLAND ENGLISH
LEHENDAKARI LEIZADLA PLAZA, 2
ZAMUDIO
946522857

Memoriaren ibilbidea atondu da Zamudion

a: Zamudioko Udala



36ko gerraren hasieran, Eusko Jaurleri-tzak Burdinazko Gerrikoa egiteko agindua eman zuen, Bilbo eta inguruak matxinatuen erasotik babesteko. Laurogei kilometrotik gorako defentsa-lerroak Arabako eta Bizkaiko hainbat udalerrri zeharkatzen zituen; Zamudio, haien artean. Azpiegituraren kontrako erasoak 1937ko ekainaren 11n hasi ziren Gaztelumendin, eta egun bi geroago lortu zuten gerrikoa gainditzea. Zamudio gerraren frontearen izan zen, beraz.

Burdinazko Gerrikoaren memoriaren ibilbidea hauen lanari esker atondu da: Zamudioko Udala, Gogora institutua, Bizkaiko Foru Aldundia eta Amagoia Guezuraga historialaria. Helburua da egun haietan gertatutakoa eta gerrako biktimak guztiak gogora ekartzea. Hamaika kilometroko ibilbidea da eta Arroetako karobian hasten da. Zamudioko Parke Teknologikoa zeharkatzen du eta, San Bartolome baselizatik igarota, pixkanaka-pixkanaka doa Berreaga-Urrusti-Gaztelumendi mendilerrotik. Mendikate horretan, Burdinazko Hesiaren zati handi bat altxatu zen eta orduko egituretako eta trintxeretako batzuk oraindik ere ikusgai daude basoen artean. Gailurrera igo ostean, ibilbideak Fulla baserrirantz egiten du eta apurka-apurka Zamudiora itzultzen da. Ibilbidea otsailaren 14an inauguratu zuten, Sasi-martxo Egunean.

Burdinazko Hesia zein haren elementu gotortuak kultura-ondasuntzat jo ziren 2017ko urrian, Monumentu Maltzo kategorian, eta ordutik babestuta daude.



RUBEN
ERLOJU-DENDA BITXITEGIA

Lehendakari Leizaola plaza, 5
48170 Zamudio
94 452 34 49

ZAMUDIO
Loteria Nazionala

Leizaola L. plaza, 7
Tel.: 94 452 09 59
Faxa: 94 656 69 95
josuastorkiza@gmail.com

ArtileArtean

Puntu eta kakorraz eskolak ematen ditugu

Enkargua jasotzen dira

Mungialde, 4 - DERIO
946 240 343 / 665 702 751
www.artileartean.com



Arkaitz Meabe Torrontegi | Ezkertiarren tiroak

Berak hazitako zortzi setterrak beti alboan, Arkaitzek mendia eta ehiza maite ditu. Bost urte zituela aitaren eskutik murgildu zen ehiza munduan; eta ondoren, osabaren eskutik. Aretagako Sandike baserriko 37 urteko lagunak oilagorak ehizatzen ditu Txorierrin, urritik urtarrilera. Txakurrei lepoko GPSdunak jartzen dizkie eta eskopeta labur bereziak erabiltzen ditu, oso teknika arina behar baita oilagorak ehizatzeko.

Testua eta argazkia: Jon Goikouria Larrabeiti
@jongoikouria

Zortzi txakur bueltaka,
behiz bizkor, behin bare,
baina nor da eskopeta
labur horren jabe?
Ehiztariak gustatzen
jakuz halan da be,
tiroa botata huts
egiten badabe.

Itallen Bertso Eskola



Unbe txiki bidea 9 – LOIU 48180
(Urdaneta ikastetxearen aurrean)

944 530 049
www.gurena.com

TALDEA  **GURENA**
ASISTENTZI ETA EGOITZA-ZERBITZUAK

ZURE NEURRIRA

Mendekotasuna duten pertsonak
Pertsona autonomoak
Eriondoak

Gurpide komunidadea, martxan eta auzolanean!

Gurpide Larrabetzuko alkarteak 10 urte bete dauz: hamarkada bat, herriko baserritarren eta kontsumitzaileen arteko zubiak eregitzen eta, beraz, lehenengo sektorea bultzatzen. Gurpide komunidadea handia da eta alkarteak sustatzen dituan ekintzetan ehunka larrabetzuarrek hartzen dabe parte. Urteurrenaren harira, beste aurrerapauso bat emon dabe eta auzolanera deitu deutsee komunidadeko partaideei.

a: Gurpide eta Idoia Andres

Urteurrena urtarilaren azken domekan ospatu eben. Herriko baserri bat bisitatzearaz ganera, ekitaldi musikatua eta kopaua eskaini ebezan Anguleri kultur etxean, egitasmoaren partaideei 10 urtean emondako laguntzagaitik eta babesagaitik esker ona azaltzeko. Era berean, alkartearen proiektu barria aurkeztu eben jentearrean. Proiektuak auzolana dau ardatz nagusizat. "Aurrera begira jarri gara eta ikusi dugu gure komunidadea, elikadura osasuntsua eta baserriaren jardurea sostengatzen dituana, arabere gehiago indartu eta aktibatu daitekeala", azaldu dabe.

Jakinarazo dabenez, baserritarrek laguntza behar dabe hainbat zereginetan, berbarako, patatak batzen, porruak ipintzen, indabak garatzen edo haizeak apurtutako berotegiak konpontzen. Bertoko eta sasoiko produktu osasuntsuen kontsumoa gehiago zabaltzeko be badago lan handia: bertoko produktuen azokea indartzea, nutrizionistekaz kontsumo-tailerrak egitea, sasoiko produktuak erabilia sukaldaritzarikastaroak antolatzea, errezetak alkartrukatzea eta dastaketak egitea. Lan horreetan guztietan be laguntzea behar dabela adierazo dabe, eta idea eta indar barriak, pixkanaka-pixkanaka ordezkioa bermatzeko. "Orduan, komunidadea gehiago lotzeko eta aktibatzeko, akordau jaku hemendik aurrera auzolanetara deitzea; hau da, gure arteko harremanak estutuz, komunidadea hau martxan eta auzolanean jartzea. Eta holan, jente gehiagoren laguntzeagaz eta lanagaz, Larrabetzun bertoko eta sasoiko elikadura osasuntsua zabaltzen jarraitzea".

Hasteko, WhatsApp talde bat osatu dabe, eta horretan deialdiak jaso gura daben guztiek emon leikie izena. Aurreikusitakoaren arabera, hemendik eta uda





bitartean birritan deituko dabe auzolane-
ra. "Deialdi bakotxean, ziur gagoz gura eta
nahi dogunon artean lan-kuadrilla politak
sortuko doguzana honetan edo hartan au-
zolanean laguntzeko". Izena emoteko, 628
124 556 telefono-zenbakira jo daiteke.

Anguleri kultur etxera alkartearen 10.
urteurrena ospatzera hurbildu ziranak
gustura izan ziran, eta antolatzaileek era-
kutsitako hurbiltasuna estimau eben. Era
berean, astero barazkien otzarea hartzen
dabenean bertatik bertara ezagutu ahal izan
eben kontsumitzen dabezan produktuak
zelan ekoizten diran.

Ahaleginean

Gurpide alkarteak eta bere inguruan
sortutako komunitadeak 10 urte daroez
Larrabetzuko lehenengo sektorea indar-
tzeko ahaleginean: otzarak, konpostatzea,
eskolako jantokia, bertoko produktuen
azokea, lurren inbentarioa... "Jarduera ho-
reetan oso sare zabalak hartzen dau parte.



Horretara, bada, 315 auzokide dabilz kon-
postatzea egiten; 50 etxetan jasotzen dabe
astero sasoiko produktuek betetako otza-
rea; ahal dogun neurrian, bertoko produk-
tuakaz elikatzen doguz eskolako haurrak;
txorizoak, okela edota sasoian ardi-esnea
eta gaztai freskoa zein sikua eskuratzeko
aukerea dago; eta herriko dendetan be
bertoko baserrietako produktu batzuk da-
goz salgai".

Ekimenetan ehunka larrabetzuarrek
hartzten dabe parte, eta alkarteak hareeta-
ko bakotzak komunitadea osatzeko egiten
dauen ahalegintxua eskertu dau. "Baserritarrek jateko naturalak eta kalitatekoak es-
kaintzen deuskuez; produktu ekologikoek
eta sasoikoek betetako saskia astero eros-
ten dabenean elikadura osasungarria eta
bidezkoa bultzatzen dabe; eta hondakin
organikoak bereizten dabezan 300 fami-
liak eta bederatzi establezimientuk baino
gehiagok tokiko nekazaritzari eta honda-
kinen kudeaketa jasangarriari laguntzen
deutsee". Bestalde, azpimarratu dabe es-
kolako umeek eta gurasoek eta jantokiko
langileek Larrabetzuko eskolea elikadura
osasungarriaren eta tokian tokikoaren
erreferente bihurtu dabela, eta esker ona
adierazo deusue bai tokiko produktuen
urriko azokea sustatzen daben herritarrei,
bai landu bako lurra nekazaritzako eta
abeltzaintzako ekimen berrietarako laga-
tzen dabezan personei.

Jatetxea SAN ISIDRO
KUNDO OKIETAN ESPEZIALIZATUA ETA ETXERO GOZOGINTZA APARTA
ESKONTZAK, BATAIOAK, JAUNARTZEAK
Karta zerbitzua - Laneko zerbitzuak - Jantoki pribatuak
Jantoki bakoitzean 180 toki - Sukaldaritza tradizionala
Telefonoa 94 454 07 98
Fax 94 454 14 13
Mungialde etorbidea, 25
48160 DERIO

tik tak
EGUNEKO MENUA
lehenengo platerra
bigarren platerra
postrea
ogia
edaria
9€
T: 94 454 55 55
Bestorrene 5, Behea
48160 DERIO

Familia osorako
kalitatezko arreta,
zure esku
Zaintza Berria
Logopedia
Pedagogia
Kinesioterapia
clínica dental ZAINDUZ horts klinika
Txonem etorbidea, 9 - Lortze | Arteaga erakina | 48160 DERIO
94 454 01 01 | 657 79 54 45
info@dentizainduz.com | www.dentizainduz.com

LEIRE BEGOÑA
ULE-APAINDEGIA
MUNGIALDE ETORBIDEA, 20
48160 DERIO
94 454 26 32
Jarrai leigazua Facebook-en

LOREGARBI
GARBIKETA ZERBITZUAK
Guri-itxurak, orokorrean
Autokom konpainiak
Mantentze guri-itxurak
Itxurak eta lokalki
Orra amariako garbikerak
Zabur bilketa
Besalde Plaza, 1 - B* Aldekone
48160 DERIO (Bizkaia)
loreagarbi@euskalnet.net
Tel: 94 406 49 92
656 712 443
Fax: 94 406 49 93

Nire Autoocasion NA
IMPORTAZIOA ETA SALMENTA
MUNGIALDE ETORBIDEA, 3 48160 DERIO-BIZKAIA
Mobilak: 686 97 06 41 - 649 16 77 12
Telefonoa-Fax: 94 454 51 92
www.nireautoocasion.com | info@nireautoocasion.com

"Ringean ibiltzea zirraragarria da"

IZARO UNGO | boxeolaria

Boxeoa berpiztu egin da Euskal Herrian. Garai batean, zaletasun handia egon zen, baina denboraren poderioz galdu egin zen. Azken urteotan, aldiz, elkarteak eta puntako boxeolariak sortu dira eta borrokak antolatzen hasi dira berriro. Zamudiobox elkarte horren harira sortu zen eta bertan Izaro Ungo gazteak entrenatzen du, besteak beste. Gaur egun lehiari dabilen taldeko neska bakarra da, eta, iaz, 15 urteko zamudioztarrak Espainiako Txapelketan hartu zuen parte.

t/a: Gaizka Eguzkitza

Zelan sartu zinen boxeoa?

Aita eta neba entrenatzen ibiltzen ziren eta 10 urte nituela neu ere hasi nintzen entrenatzen. Hasiera batean, jolasa, eskolaz kanpoko jarduera izango balitz bezala aritzen nintzen: koordinazioa eta abiadura lantzeko jolasak-eta.

Hasieran jolasa, baina iaz hasi zinen lehiari sartzen, ezta?

Bai, neba hasi zen lehiari sartzen eta udan gogor hasi zen entrenatzen. Berari laguntzea erabaki nuen eta uda pasatu eta gero Zamudiobox taldekoek esan zidaten lehiari sartzeko. Gustura nengibilen eta onartu egin nuen.

Nolako lehiak izan ziren?

Hasiera batean, gimnasioen arteko borrokak egin genituen. Lehiari pare bat izan nituen eta, harrezkero, Bizkaiko Txapelketan hartu nuen parte.

Entrenamenduak eta borrokak egingiten dituzu. Zein nahiago?

Askos gehiago sufritzen da entrenatzen, borrokatzen baino. Eta zenbat eta gehiago sufritu entrenamenduetan, orduan eta gutxiago sufrituko duzu ringean (kar, kar). Hala ere, nik nahiago dut borrokatzea: adrenalina asko askatzen duzu, oso zirraragarria da.

Erraza izan zen ringean sartzeko beldurra gainditzea?

Astakilo hutsa naiz eta aurrera egiten dut (kar, kar). Beldurra apurka-apurka gainditzen duzu. Kolperen bat jaso dut baina ez da hainbesterako izan.

Zergatik erakartzen zaitu boxeoa?

Hainbat esparru lantzen direlako: indarra, koordinazioa, abiadura, erresistentzia... Eta gainera, lagun handiak egin ditut: Zamudiobox taldea familia bezalakoa da, aurkariekin ere harreman ona dut... Lagun giro polita dago boxeoa.

Ematen duen bezain gogorra da boxeoa?

Bai. Boxeoa edonork egin dezake, baina lehiari sartzeko, egunero entrenatu behar zara. Oso saiaturia izan behar da.

Gainera, pisua kontrolatu behar da eta horretarako gogor entrenatu behar da, eta askotan elikadura zaindu. Eta hori niri bereziki kostatzen zait. Dena dela, jendea etortzera eta probatzera animatu nahi nuke. Gimnasioan ez dugu inor joko. Esan dugun moduan, boxeoa alderdi bi ditu: batetik, entrenamendua, zaletasuna, kirola; eta bestetik, lehiari. Eta ringean hori nahi duena bakarrik ibiliko da. Eta batez ere neskei esango nieke jendeak esaten duenari kasurik ez egiteko, pasoa egiteko.

Nolako da emakumezkoen boxeoa?

Janzkerari dagokionez, gizonezkoen boxeoa bezalakoa –eskularrak eta kasako–, baina neskak bularrean babesgarria ere janzten dugu. Borrokak ere antzekoak dira: junior kategorian (14-16 urte), minutu biko hiru round jokatzen ditugu; eta gazte kategorian (16-18 urte), hiru minutuko hiru round. Elite kategorian, gizonezkoek kaskoa kentzen dute, baina emakumezkoek ez.

Oso desberdina da gizonezkoen eta emakumezkoen boxeoa?

Bai, mutilek gogorrago jotzen dute. Askos oldarkorragoak dira. Bestetik, batzuetan neskak arazoak ditugu aurkariak topatzeko, emakume gutxi dabiltzalako honetan. Izan ere, aurkaria norberaren adinekoa eta pisukoa izan behar da. Iaz,

"Beldurra apurka-apurka gainditzen duzu. Kolperen bat jaso dut baina ez da hainbesterako izan"

"Boxeoa edonork egin dezake, baina lehiari sartzeko, egunero entrenatu behar zara"





esate baterako, Bizkaiko txapelketa irabazi nuen eta, horretarako, aurkari biri irabazi behar izan nien. Euskadiko txapelketa ere irabazi nuen, Arabatik eta Gipuzkoatik neskari aurkeztu ez zelako. Beraz, Espainiako txapelketarako txartela lortu nuen. Eta hori mutilei ez zaie gertatzen, mutil gehiago dabiltzalako.

Profesionala izatea gustatuko litzazuke?

Ez dakit. Apurka-apurka noa. Mementuz Espainiako txapelketa dut helburu. Iaz, laurok hartu genuen parte, eta fin ibili arren, lehenengo borrokan galdu egin nuen. Ea aurtan emaitza hobetzeko gauza naizen. Eta gero gerokoak. Lehenago Euskadiko txapelketa etorriko da. Hortik aparte, kanpora ere joaten gara borroka egitera: Asturiasera, Valladolidera...

"Apurka-apurka noa. Ea iazko emaitzak hobetzen ditudan. Eta gero gerokoak"



Unitzaga Roala Kalea, 1 | Tel.: 94 403 40 60 | info@txorierri.net
46100 - DEPIO | Fax: 94 403 40 61 | www.txorierri.net
Eusko Jaurlaritzak diruz-lagundutako ikastetxea



BATXILERGOA

- Zientziak Batxilergoa

ERDI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK

- Mekanizazio Teknikari

GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK

- Fabrikazio Mekanikoko Diseinuko Goi-mailako Teknikari
- Produzioa Programatzeko Goi-mailako Teknikari
- Automatizazioa eta Robotika Industrialako Goi-mailako Teknikari
- Telekomunikazioa eta Informatikako Sistemako Goi-mailako Teknikari
- Salmenten eta Merkataritza Esparruen Kudeaketako Goi-mailako Teknikari
- Ingurumen Hezikuntza eta Kontrolako Goi-mailako Teknikari

Mankomunitateak 8,27 milioi euroko aurrekontuak onartu ditu 2020rako



Onartu zen 2020ko ekitaldiko aurrekontu orokorra 8.270.345,93 eurokoa da, bai diru-sarrerei bai gastuei dagokienez. Gainera, horrekin batera, Txorierriko Udal Euskalgia erakunde autonomoaren eta Behargintza Txorierri SL merkataritza-erakundearen aurrekontuak ere onartu ziren: 716.743,62 euro eta 826.525,65 euro, hurrenez hurren.

Aurrekontuak gastu publikoaren printzipio orokorrak errespetatzen ditu. Horrela, gastu publikoaren sostengurako ekarpenean oinarritzen da, ahalmen ekonomikoaren, berdintasunaren eta progresibitatearen printzipioen arabera, Mankomunitateak ezarritako ordainarazpen sistema zergadun guztiekin behar bezain bidezkoa izan dadin.

Onetsitako aurrekontuak aldaketa hauek ditu hasieran, 2019an, onartutakoarekin alderatuta: Mankomunitatearen beraren aurrekontua % 2,24 hazi da; Txorierriko Udal Euskalgia, % 14,91; eta Behargintza Txorierri, % 5,76.

2020ko ekitaldirako, prezio publikoak mantentzearen aldeko apustu garbia egin da, eta, beraz, ez da aurreikusi Mankomunitateak ezarritako prezioak

igotzea. Hala ere, nabarmendu behar da 2017an gizarte-zerbitzuen arloan ematen hasi ziren zerbitzuak finkatzeak –Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren Prestazio eta Zerbitzuen Zorroari buruzko Dekretuaren 2. Xedapen Gehigarriaren ondorioz– eta Gizarte Zerbitzuen Euskal Maparen aurreikuspenak ezartzeak diru-sarrera berriak ekarriko dizkiotela Mankomunitateari, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistema zabaltzeko aparteko funtsetik.

Ohiko zerbitzuak modu beretsuan emango dira.

Bestalde, langileen ordainsariak % 2,5 igotzeko kreditua esleitu da, 2020rako Estatuko Aurrekontu Orokorraren Legeak ezartzen duenaren esanetara. Lan-kontratuko langileak kontratatzeak kreditua ere esleitu da, gizarte-zerbitzuetako koordinatzaile bat kontratatzeak, 2019ko aurrekontuak onespeneko osoko bilkuran erabaki zen bezala.

Lehen mailako gizarte-laguntza ere 12.000 euro gehitu dira, gizarte-bazterketako arriskuan dauden pertsonentzako apartamentuetarako. Mankomunitatearen egoitza zaindu, konpondu eta mantentzeko behar diren kontu-sailei eusten

zaie, bai eta bere jardura behar bezala egiteko behar diren guztiei ere. Halaber, dagoeneko esleitura dauden eta nahitaez bete behar diren zerbitzuen kontratuen zenbatekoak jasotzen dira, sinatutako kontratuek behartzen dituzten prezioen berrikuspenekin.

Mankomunitateak hondakin organikoak edukiontzi marroian biltzeko sistemaren aldeko apustua egiten jarraituko du, baina sistema ezarri ondoren, orain, hasierako proiektua handitu edo indartu nahi da, parte-hartzaileei laguntzeko: saltokietan poltsak banatu, aholkularitza eman eta abar. Bestetik, berdintasunarako teknikariaren lanaldia luzatu egin da, Txorierriko Udalei zuzenago eta hobeto erantzuteko. Jardura fisiko bultzatzeko eta herritarren artean sedentarismoa gutxitzeko partida 26.804 eurora arte handituko da Mugiment proiektuarekin. Egitasmo hori eragile komunitarioek eta udaletako teknikariek sortu zuten, BFA-rekin, Eusko Jaurlaritzako Osasun Publikoarekin eta Osakidetzarekin batera. Euskarari dagokionez, 41.000 euro daude EUSKARALDIA proiekturako. Era berean, gizarte-larrialdietarako laguntzak % 7,24 handitu dira, 2019an baino 35.000 euro gehiago.

Mankomunitateak enplegua sustatzeko egin duen apustuari jarraiki, 254.000 euroko ekarpena egingo zaio Behargintza Txorierri SL / EGAG sozietate publikoari. Izan ere, enplegua da Txorierriko herritarrentzako lehentasun nagusia. Hori dela eta, Mankomunitateak behar horri eutsi nahi dio, kalitatezko eta lehen mailako enplegu-zerbitzuaren alde eginez. Gainera, Behargintzak Txorierriko enpresei laguntzeko zerbitzua ematen jarraitzen du. Amaitzeko, ekitaldi honetan Mankomunitatearen egoitza handitzeko obrak egingo dira. Horretarako, 14.000 euroko aurrekontua egin da obrak finantzatzeko kreditua amortizatzearen zenbatespen gisa.

Mankomunitatearen aurrekontu-proiektu horretan, argi eta garbi pertsonen, enpleguaren, euskararen, berdintasunaren, gizarte-zerbitzuen, osasunaren eta abarren aldeko apustua egiten da.



Mihiluze lehiaketa

Txorierriko Zerbitzuen Mankomunitateak martxan jarri du berriro Mihiluze lehiaketa. Horrek Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. mailetako ikasleek euskaraz jolastea du helburu. Parte hartu nahi dutenek izena eman ahal dute Txorierriko ludoteketan martxoaren 22ra arte. Irabazleek sari politak irabazteko aukera izango dute: Madrilgo Warner parkeko sarrerak, Senda Viva parkerako sarrerak, Donostiako Aquariumerako sarrerak eta Hontza Extreme Abentura Parkerako sarrerak, hain zuzen ere.

Informazio gehiago:
www.txorierri.eus

Ipuin lehiaketaren sari banaketa

Txorierriko Ipuin Lehiaketa aurten 22. aldiz egin da. Zerbitzuen Mankomunitateak urtero antolatzen du lehiaketa eta martxoaren 27an banatuko dira sariak. Ekintza Derioko Kultur Birikan egingo da, 19:00etatik aurrera eta Imanol Ituño magoak ikuskizuna eskainiko du, ekitaldia girotzeko.

Data eta ordua garbi

Gure mezu, kartel eta idatzietan, sarritan, ekitaldi edo hitzaldi baten berri emateko, data eta ordua adierazi behar izaten ditugu. Baina, garbi al dugu nola eman behar ditugun? Nahiz eta Euskaltzaindiak horiei buruzko arauak 1995. urtetik emanda dituen, oraindik ere forma desegokiak ikus daitezke. Data adierazteko orduan, aukera bat baino gehiago dago: "Derion, 2020ko otsailaren 23an" edo non kasu-marka (inesiboa) erabili garik: "Derio, 2020ko otsailaren 23a".

Kontuan hartu hilabeteak letra xehez idatzi behar direla, eta gogoratu non kasua hartzean, bi zenbaki berezi ditugula: 11n eta 31n (non kasu-markarik gabe: martxoaren 11, martxoaren 31). "Otsailak 23" ere erabili liteke, baina aposizioan: "Gaur, otsailak 23, egun seinalatua da...". Hori bai, horrelakoek ezin dute deklinabide markarik jaso (otsailak 23an*).

Orduen berri emateko gogoan izan beharreko bi kontu ditugu: forma jasoak lau digitu eskatzen ditu eta minutuak singularreko kasu-markak hartzen dituz-

te, 17:30ean (eta ez 17:30etan), 10:10ean eta 08:15ean. Dena dela, kartel, egitarau eta antzekoetan erdiko bidea erabil genezake: arratsaldeko 6etan, goizeko 11,30etan...



Giza eskubideen alde eta faxismoaren kontra

Sondika

Martxoaren 6a, barikua

–“Gure gorputzaren gaineko indarkeria” tailerra, Gaztetxean.

Martxoaren 8a, domeka

–Ekitaldia, Kultura Aretoan.

Martxoaren 13a eta 27a

–“Gizonak, parekotasunaren alde lankidetzan” tailerra, Gaztetxean.

Martxoaren 20a, barikua

–“Parekotasunaren aldeko esekitokiak” tailerra, Gaztetxean.

GARRASIA TALDE FEMINISTAK ANTOLATUA

Martxoaren 7a, zapatua

–13:00 Batukada feminista herritik, Repercusion Feminista batukada taldearen eskutik.

–15:00 Bertso-bazkari feminista, Altzora euskara elkartearekin batera.

–18:00 Poteo feminista, herritik.

Martxoaren 8a, domeka

–Bilboko manifestaziora joatea.

Martxoaren 15a, domeka

–Zineforuma, arratsaldean.

Martxoaren 28a, zapatua

–19:30 Hitzaldia.

Lezama

Martxoaren 6a, barikua

–Berdintasunaren aldeko tailerrak, Ludo-terekin. Arratsaldean.

Martxoaren 7a, zapatua

–10:00-14:00 eta 16:00-18:00 Autodefentsa tailerra, Uribarri Topalekuan.

–19:30 Toca ganar antzezlan, Ausartak taldearen eskutik. Kultura Aretoan.

Martxoaren 8a, domeka

–13:00 Elkarretaratze ibiltaria, plazan.

Martxoaren 13a, barikua

–18:00-20:00 Sexu-tailerra, emakumeentzat, Kultura Aretoan.

MOREAK TALDE FEMINISTAK ANTOLATUA

Martxoaren 8a, domeka

–13:00 Kalejira.

–15:00 Bazkari feminista. Izena ematea, herriko tabernetan.

Emakumeen Nazioarteko Eguna domekan izango da aurten, eta Euskal Herriko mugimendu feministak horregatik ez du grebara deitu. Hala ere, kaleak betetzeko deia egin du “eskuin mutur zaharkituari, misoginoari eta homofobiari aurre egiteko”. Bestalde, aurtengo aldarrikapenak giza eskubideak izango ditu ardatz. Talde feministek eta erakundeek antolatuta, hainbat ekitaldi izango ditugu Txorierrin ere bai.



Martxoaren 3a, martitzena

–17:00 “No murieron de sífilis. La verdadera historia de las «Mujeres Fantasma» hitzaldia, Kultur Birikan. Sutondoan elkarteak antolatua.

Martxoaren 4a, eguaztena

–17:00 Sufragistas bideo-foruma, Kultur Birikan. Sutondoan elkarteak antolatua.

Martxoaren 6a, barikua

–“Postureoa, gizarte-sareetan” tailerra, Gazteleku.

Martxoaren 8a, domeka

–10:30 Graftia hasia.

–11:00 Parekotasunaren aldeko martxa.

Derio

–12:15 Txanoak apaintzeko tailerra.

–12:15 Zumba.

KOXAK TALDE FEMINISTAK ANTOLATUA

Martxoaren 7a, zapatua

–19:00 Poteo feminista, beheko partetik.

Martxoaren 8a, domeka

–10:00 Gosari feminista, frontoian.

–11:15 Herriko Plazara jeistea.

–11:30 Elkarretaratzea, Herriko Plazan.

–12:18 Bilbora, trenetx.

–13:00 Bilboko manifestazioa.

Larrabetzu

ZUTUNIKI! TALDE FEMINISTAK ANTOLATUA

Martxoaren 7a, zapatua

–19:00 Irina Gonzalez kantari kubatarra-
ren emanaldia, Hori Bai gaztetxean.

Martxoaren 8a, domeka

–Bilboko manifestaziora joatea.

Martxoaren 11, eguaztena

–19:00 Andrazaharren manifestua hizpide,
Mari Luz Estebaren eskutik. Anguleri
kultur etxean.

Martxoak 15, domeka

–18:30 Donekak Hori Bain: *Piromania*
emanaldia, Anariren eskutik.

Loiu

Martxoaren 6a, barikua

–11:00-13:00 Ekitaldia ikastetxeetako
ikasleekin.

–Martxoaren 7a, domeka

14:30 Adierazpena.

14:45 Bazkaria.

16:30 Iñaki Basabe.

18:00 Karaoke.



Zamudio

Martxoan

–Marchinlilac ekimena, liburutegian:
emakume idazleen gida eta lehiaketa,
neska eta mutil abenturazaleen gida eta
lehiaketa eta berdintasunaren atala.

Martxoaren 6a, barikua

–17:30ean Berdintasuna lantzeko taile-
rrak, Ludotekan.

–19:00 *Sex o no Sex* antzezlan, Virginia
Imazen eskutik. Zamudiotorren.

–19:30 Iholdi Beistainen kantaldia, Crazy
Guitar tabernan. Lagatzuk antolatua.

Martxoaren 7a, zapatua

–11:30 Parekotasuna lantzeko umeen-
tzako ipuin-saioa, liburutegian.

Martxoaren 8a, domeka

–12:00 Elkarretaratzea, Sabino Arana
plazan.

Martxoaren 13a, barikua

–19:30 "Postureo" tailerra, Gaztesta-
zioan.

ZAPATA GORRIAK

ELKARTEAK ANTOLATUA

Martxoaren 7a, zapatua

–Tailerra, goizean

Martxoaren 8a, domeka

–19:00 Elkarretaratzea.

BERTSO-AFARIA

Etxahun Lekue
Jone Uria
Aitor Mendiluze

Martxoak 20, barikua
Baserri Antzokia
21:00

Prezioak: Nagusiak, 20 €; ikasleak/soldabakakoak, 15 €
Non erosi: Pikoteo taberna (Zamudio), Oxangoiti
taberna (Lezama), Foteri taberna (Larrabetzu),
AEK eta Baserri Antzokia (Derio)



KANTALDIA
(Emakumearen Eguna 2020)

Iholdi Beristain
Go!azen telesaioko artista

Martxoak 6, barikua
Crazy Guitar taberna
(Zamudio)
19:30



200 ale ditugu kalean

Esku artean duzuna AIKOR! aldizkariaren 200. alea da. Eta zenbaki potoloa denez gero, atzera begiratu, eta hausnartu dugu hamarkada bitan egindako lanari buruz. Aldizkariaren “aldaketa fisikoa” ere aztertu dugu eta urte hauetan euskararen eta euskal kulturaren inguruan izandako gertaera gogoangarrietako batzuk ekarri ditugu orrialdeotara. Bestalde, 200 aleetan euskararen eta euskal kulturaren alde lan egiten duten hamaika pertsona eta elkarte elkarrizketatu ditugu. Tamalez, ez dugu leku nahikorik guzti-guztiak aipatzeko eta, gainerakoak ahaztu barik, gutxi batzuk nabarmendu ditugu. Esker ona, guztientzat.

IDIOSINKRASIA

AIKOR! aldizkariaren 0 alea 2001eko abenduan eman genuen argitara. Egitasmoa TOTOAN Txorierriko Euskara Elkar-teen Federazioak –Lagatzu, Zorritzetan, Arrekikili– bultzatu zuen, helburu bi zituela: alde batetik, euskararen erabilera sustatzea; eta bestetik, herritarren arteko harremanak estutu eta txorierritarren sarea osatzea. Euskara elkarteak jaio berriak ziren garai hartan eta herrialde batzuetan ahaleginak egiten zebiltzan euskarazko tokiko komunikabideak sortzeko; beste batzuetan, bazeuden. Guk ere ahaleginak merezi zuela pentsatu genuen eta, baliabide gutxi izan arren, ilusio handiz ipini genuen aldizkaria martxan. Harrezkero, hilero-hilero eta oztopoak oztopo, etxera eramane dizkizuegu eskualdeko berriak eta txorierritarren bizipenak, lorpenak eta gogoak. Mota askotako lagunak ateratzen dira gurean eta, momentu batean edo bestean, Txorierri osoa egon da berton ordezkaturatuta.

SAREA

AIKOR! martxan ipintzeak guztion ahalegina eskatzen zuen eta txorierritarrek ez zuten dudarik izan euren laguntza emateko orduan. Loitutik Larrabetzuraino, euskaltzaileen sare handia eratu zen aldizkariaren inguruan. Azken urteotan, 180 kolaboratzaile baino gehiago izan ditugu eta bakoitzak modu batean edo bestean lagundu digu: protagonistak gugana hurbilduta, herriko albisteak jakinarazita, artikulua idatzita, argazkiak bidalita edota ideiak proposatuta. Zerrenda luzea da eta beldur gara ez ote dugun baten bat aipatu barik utziko. Nolanahi ere, bereziki gure kolaboratzaileetako bi gogora ekarri nahiko genituzke: Zalao Jaka eta Igor Urrutikoetxea. Lehena, beti laguntzeko prest azaldu zelako; eta bigarrena, mundua eta langileen borroka beste ikuspegi batetik ulertzen irakatsi zigulako. Biek gazte-gazte zirela utzi gintuzten, baina dauden tokian daudela betiko izango dira gure sarearen partaide.

AIKOR!LAGUN

Arestian aipatu dugunez, baliabide gutxirekin eman genituen lehenengo pausoak. Tamaina honetako proiektu bat aurrera eramateko, lan-tresnak ez ezik sostengu ekonomikoa ere ezinbestekoa da eta bidean hiru finantziario-iturri izan ditugu: dirulaguntza publikoak, haraneko denden eta enpresen iragarkiak eta aikor!lagunen diru-ekarpena. Zenbait karpaina zabaldu ditugu bazkideak hartzeko eta, lagun askoren ahaleginari esker, 247 aikor!lagun gara gaur egun. Bestalde, Txorierriko merkatariek hasiera-hasieratik eta urte hauetan guztietan, krisialdia egonda ere, adierazitako babesa benetan esker-tzekoa da. Eurak ere aikor!lagunak dira eta eurek ere ezinbesteko ekarpena egin dute haranean euskara zabaltzeko.

ONLINE

2007. urtean beste pauso bat egin eta aikor.com webgunea sortu genuen. Horrek txorierritarren bilgune birtuala izatea zuen helburu nagusiztat, eta, paperezko edizioak aldatuz eta artikuluek gainera, zenbait atal ipini ziren haren bidez partikularrek eta elkarteek ekarpenak egiteko, hala nola bloga eta argazki-galeriak. Bederatzi urteren ondoren, harago joan eta aikor.eus ipini genuen martxan. Atari berria modernoagoa da eta, gaur egungo beharrezanetara erabat egokitzeaz gainera, txorierritarren parte-hartzea bultzatzen jarraitzen du. Era berean, bat egiten du .eus euskararen eta euskal kulturaren komunitatearen Interneteko lehen mailako domeinuarekin.





TXORI KOSKORRA

Badira 19 urte Aikor! jaio zela, eta, edozein izaki moduan, koskortuz eta sendotuz joan da adin-nagusitasunerantz. Horrela, aldizkaria Txorierriekin batera hazi da eta 28 orriko 4.000 ale banatzetik 40 orriko 8.000 ale banatzera pasatu da, ahalik eta auzo eta biztanle gehienengana ailegatu ahal izateko. Gainera, zuri-beltzak aspaldian utzi zion lekua koloreari eta aldizkariaren diseinua goitik behera berriztu genuen, irakurleei eta iragarleei produktu modernoagoa eta erakargarriagoa eskaintzeko. Aikor! euskaltzaleek, kazetariak, hizkuntzalariek eta artistek osatutako talde plural eta zabal baten eskutik ailegatu da helduaro-ra, horien guztien lan eskuzabalari esker. Alabaina, bizitza etengabeko ikasprozesua da eta datozen urteetan ere han eta hemen arakatzen jarraitzeko asmoa dugu, garai berrietara egokitzeko eta helduago bihurtzeko.

TOKIKOM

Aikor!, gainerako tokiko komunikabideen antzera, indartsua da bere ingurunean, baina Euskal Herri mailan oso indar eta eragin eskasa du. Hori dela eta, 2010ean hasita tokiko beste hainbat komunikabideekin batera batzearen aldeko lana bultzatu zuen, eta 2012an Tokikom sortu genuen ondoko zeregin hauekin:

–Toki komunikabideen solaskidetza bateratua beste eragile publiko zein pribatuaren aurrean.

–Jarduera esparru komunaren kudeaketa: publizitatea, presentzia digitala, kudeaketa, erosketak...

–Sektorearen garapena eta heldapena errazteko konbergentzia estrategikoak diseinatzea.

Horrela, gaur egun TOKIKOMek 29 bazkide ditu, orotara 66 komunikabide kudeatzen dituztenak, euskarri guztietan: papera, irratia, telebista eta digitala.

Libre dagoen txoriak fazil egiten du barre

txori tokia



TXORIERRIKO UDAL
EUSKALTEGIA



EUSKALTEGIETAKO IKASLEEN DEIALDIAK-2020

- 2020 urtean, **bi azterketa-deialdi**, B2, C1 eta C2 mailak egiaztatu ahal izateko.
- **Matrikulazio-epea**. Lehen deialdian: martxoaren 17tik 25era.
- Parte hartzeko: euskaltegi batean matrikulatuta egotea 2019ko ekainaren 1etik aurrera hasitako ikastaro batean.

INFORMAZIO GEHIAGO: habe.euskadi.eus

DEIALDI IREKIAK-2020

- 2020 urtean, **bi deialdi**: lehenengoa, C1 maila egiaztatzeko; bigarrena, B1, B2, C1 eta C2 mailak.
- **Matrikulazio-epea**: martxoaren 17tik 25era (C1 maila).
- Parte hartzeko: ez da beharrezkoa euskaltegi batean matrikulatuta egotea.
- Deialdi irekian matrikulatzen denak ezin izango du inolako matrikularik burutu sasoi bereko euskaltegi-tako ikasleentzako egiaztatze-deialdian.




KORRIKA

Aikor! aldizkarian 2003ko apirilean jaso genuen lehen aldiz Korrika. Euskararen aldeko lasterketaren 13. edizioa izan zen hura, eta harrezkero zortzi biderrez gurutatu du Txorierri. Guztietan partikularrak, elkarteak, erakundeak eta enpresak izan ditu zain, tipi-tapa, euskararen lekukoa eskuz esku emanez.

LITERATURA

2009ko ekainaren 5etik 7ra bitartean, Larrabetzu euskarazko liburu-azoka handia bihurtu zen lehenengo aldiz. Literatura Eskolak bultzatuta, Euskal Herri osotik etorritako irakurleen eta idazleen arteko topagunea izan zen bost urtean, harik eta 2014ko apirilean Zarautzera eraman zuten arte.




MIKEL ZARATERI OMENALDIA

2004an 25 urte bete ziren Mikel Zarate idazle lezamarra hil zela, eta apirilean ekitaldi-sorta zabala antolatu zen hura gogora ekartzeko. 2019ko apirilean ere omenaldia egin zioten herrian, bere heriotzaren 40. urteurrenaren harira. Zaratek ekarpen handia eta garrantzitsua egin zien euskaingintzari eta euskarari, eta Lezamako Udalak eta Elkar argitaletxeak Mikel Zarate haur-literatura saria sortu zuten bere omenez 2010ean.

20
01

EUSKAL EZKONTZA

Gorantzaileak dantza taldearen 40. urteurrenaren harira, euskal ezkontza antolatu zen lehenengo aldiz 2006ko irailaren 7an Sondikan. Ondorengo urteetan ere euskal ezkontza antzeztu da bertan, baina esan behar da Sondikakoa ez zela gurean egin zen lehenengo ezkontza izan: Derion 2000ko urrian antzeztu zen lehen aldiz eta han herriko talde guztiek hartu zuten parte. Handik urte bira berriro antolatu zuten.



LEZAMAKO TOPONIMIA LIBURUA

Liburuan 1.100 bat toponimo batu ziren eta lana 2004ko urtarrilean aurkeztu zuten jendaurrean. Harrez gero, horren moduko beste lan batzuk egin dira Txorierri, euskara elkarteek eta gainerako eragileek bultzatuta. Esate baterako, *Derioztarren euskara liburua* 2006an kaleratu zen, eta *Hizkuntza aldakortasuna Larrabetzun liburua*, 2017ko azaroan.



BERBALAGUN

TOTOAN TEEFk eta Mankomunitateak Txorierriko Berbalagun egitasmoa ipini zuten martxan 2008ko irailean, euskaldunak eta euskalduntzen zebiltzanak harremanetan jartzeko eta euskaraz modu naturalean egin zezaten. Hala ere, egitasmoa ez zen berria gurean: Arrekikili euskara elkarteak 2002an sortu zuen berbalagun taldea Larrabetzun; eta Tximintx euskara elkarteak, udal-euskaltegiak eta Txepetxea AEK euskaltegiak, 2005ean Derion.



ALTZORA

Sondikako euskara elkarteak 2011n sortu zen, herrian euskararen erabilera bultzatzeko eta sondikoztarrak euskaraz bizi ahal izateko bideak zabaltzeko. Baina ez da urte hauetan jaio den euskara elkarte bakarra: askoz lehenago, 2003an, Tximintx jaio zen Derion helburu bera betetzeko; gainera, hausnarketa-prozesu sakon baten ostean, komunitate bihurtu zen iaz.

EUSKARALDIA

2018ko azaroaren 23tik abenduaren 3ra arte Euskaraldia egin zen Euskal Herriko hainbat herritan. Egitasmoak hizkuntza-ohituretan eragitea izan zuen helburu, eta Txorierrin 2.492 lagunek egin zuten bat harekin: 1.636 ahobizi eta 856 belarriprest. Arduradunen esanetan, Euskaraldiak eskualdea uste den baino euskaldunagoa dela utzi zuen agerian.



AKARBALTZ GAUA

Kultur Bilguneak sustatuta, 2015eko urriaren 31n ospatu zuten lehenengo aldiz Larrabetzun, Halloween ospakizunaren harira, umeak Estatu Batuetako iruditeriatik urrundu eta Euskal Herriko mitologiara eta ohituretara hurbiltzeko. Zamudioko Udalak, bestalde, 2017an antolatu zuen lehendabiziko aldiz Arimen Gaudia; eta Altzora euskara elkarteak, herriko taldeek, eskola-ludotekak eta udalak iaz bultzatu zuten Gau Beltza.

20

20

BASERRI ANTZOKIA

2016ko urriaren 5ean, Baserri Antzokiak oihala igo zuen Txorierrin, Derion hain zuzen ere. Euskararen inguruko Euskal Herriko azpiegiturarik handienetako bat da, eta, euskara eta euskal kultura sustatzeaz gainera, haraneko zein inguruko euskaltzaleen topagunea izatea du helburu.



FUTBOL ENTRENATZAILEEN ESKOLA EUSKARAZ

Egitasmoak TOTOAN TEEFk eta ITZARRI aholkularitza enpresak ipini zuten martxan 2010eko irailean, Txorierriko Mankomunitatearen eta Foru Aldundiaaren laguntzarekin eta eskualdeko futbol klub oniritziarekin. Proiektuak entrenatzaileei tresnak ematea du helburu, entrenamenduetan euskara erabil dezaten eta, ondorioz, gazteek euskara aisialdiarekin eta kirolarekin ere lotzeko.



MINTZA EGUNA

Txorierriko Berbalagun egitasmoak eta Tximintx euskara elkarteak Euskaltzaleen Topagunarekin batera antolatuta, Euskal Herriko mintzalagunen, solaslagunen eta berbalagunen jaia 2017ko ekainaren 3an ospatu zen Derion. Egitarau oparoa gozatu ahal izan zuten, hala nola bisita gidatua Bilboko hilerritik, bertso-triki-dantza-poteoa eta bazkaria.

Gurean izan direnak



JEAN HARITSCHELHAR
Euskaltzainburua (1988-2002)

Baigorriin jaio zen 1923an. Bizitza osoa eman zuen euskararen alde lan egiten, batez ere euskaltzainburua eta Baionako Euskal Museoaren zuzendaria izan zenean. Gainera, Bordeleko Unibertsitateko katedraduna eta Baigorriko alkatea ere izan zen. 2013an hil zen Biarritzen.



BENITO LERTXUNDI
Musikaria

Oriotarra (1942) euskal musikagintzaren erreferente nagusietako bat da. Lertxundi euskal kultura bultzatzeko sortutako *Ez dok amairu* taldeko kidea izan zen, besteak beste Xabier Leterekin eta Mikel Laboarekin batera. Guztira 16 disko plazaratu ditu.



NATXO DE FELIPE
Musikaria

Bilbotarra (1949) Oskorri talde mitikoaren ahots nagusia eta aurpegia izan zen 1971tik 2015era bitartean. Oskorrik hainbat disko kaleratu zituen eta lan ikaragarria egin zuen euskal kantutegi tradizionala lau haizeetara ezagutzera emateko.



a: Santiago Yaniz

KEPA JUNKERA
musikaria

Bilbotarra (1965) trikitiaren maisua da. Junkerak 29 disko eraman ditu argitara eta hainbat estilo jorratu ditu, batez ere folka. Bere ibilbidean, sari garrantzitsu batzuk jaso ditu: esate baterako Grammy Latindarra (2004an) eta Espainiako Musika Saria (2011n).



a: Peru Iparragirre

MIREN AGUR MEABE
idazlea

Lekeitiarra (1962) euskara eskola ematen hasi zen, baina batez ere idazle eta itzultzaile aritu da. Hainbat liburu idatzi ditu, gehienbat poesia eta gazte-literatura arloetan. Bere liburu batzuk katalanera, gaztelaniara eta galegora itzuli dira. 2006an, Euskaltzaindian sartu zen.



a: XDZ

MAIALEN LUJANBIO
bertsolaria eta idazlea

Hernaniarra (1976) 2009an lehenengo emakumea izan zen Euskal Herriko Bertsolari Txapelketa Nagusia irabazten, eta 2017an berriro eskuratu zuen txapela. Bestalde, kolaborazioak egin ditu zenbait musikarirekin: Alaitz eta Maider, Anje Duhalde, Mikel Markez, Oskorri...



PORROTX
pailazoa

Joxe Mari Agirretxek (Lasarte-Oria, 1964) talde arrakastatsua osatu du Pirritxekin eta Mari-mototsekin batera. Taldekideek euskararekin konpromiso tinkoa adierazi dute azken 32 urteotan: guztira, 27 ikuskizun antzeztu dituzte, 33 disko eta 400 abesti grabatu.



Bertokoak



ETXAHUN LEKUE

Larrabetzuko bertsolaria erreferente handia da gurean: Itallen bertso eskola zuzentzeaz gainera, bertsolaritza-eskola ematen du herri-ikastetxean. Ohiko da Lekue bertso-saioetan eta txapelketetan ikustea. 2016ko abenduan Bizkaiko txapelketa irabazi zuen.



ELKARTEAK

Euskara elkarteaz gainera, Txorierriko elkarte asko jo eta ke dabilta lanean, berton zein kanpoan euskara eta euskal kultura zabaltzeko: dantza taldeak, abesbatzak, txistu-taldeak, Bertoko, Taberna Ibiltaria, Pentagrama... Guzti-guztiek harro egoteko moduko lana egiten dute.



MIREN ELORRIAGA

Derioko katekista izan zenak lan handia egin zuen herrian euskararen alde. 1974an-edo Kili-Kili egitasmoa sortu zen umeei euskara irakasteko, eta bera haren partaideetako bat izan zen: Umeei euskal kultura hurbiltzen ere ahalegindu ziren eskoletan.



BELEN GANA

Loiutarra euskara militantea da: oso gaztetxo zela hasi zen lanean euskara arloan eta Txepetxa Derioko AEK euskaltegiaren arima izan da 2017ra arte. Emakume nekaezina da, eta gogotsu ikusi dugu Korrika antolatzen edota Txorierri euskararen inguruan sortzen diren ekintza guztietan parte hartzen. Erretiroa hartu arren, euskarak bere bizitzaren ardatzetako bat izaten jarraitzen du.



GAIZKA PEÑAFIEL

Lezamarrak oso gaztetxo zela erakutsi zuen euskal kulturarekiko eta musikarekiko zaletasuna. Trikitilariak kolaborazioak egin ditu zenbait musikarekin, eta bere lanak ere plazaratu ditu: Lezamako *Andra Mariak* abestia, *Ekidazu* diskoa eta *Lagunartean* diskoa. Argazkigintzarako pasioa ere badu, eta bere argazki-kamerako objektiboa herriaren bilakaeraren zein euskal musikaltaldean ibilbidearen lekuko izan da.



JUAN LUIS GOIKOETXEA

Txorierri Institutuko irakasle ohia euskaltzain urgazlea da, eta Bostak Bat lantaldeko eta Mendebalde Kultur Alkarteko kidea. Euskararen aldeko hainbat egitasmotan ibilia, bereziki bizkaiera eta Txorierriko euskalkia zaindu ditu. Derioztarrak liburu batzuk kaleratu ditu, hala nola *Euskalkia eta hezkuntza* eta *Euskaldunaren anekdotak*.



TOTI MARTINEZ DE LEZEA

Larrabetzuarra Txorierriko zein Euskal Herriko idazlerik emankorrena da. Literatura-genero anitz jorratzen ditu eta helduentzat ez ezik gazteentzat eta umeentzat ere idazten du. Bere lanak euskaraz, frantsesez, alemanez, portugesez, txineraz eta errusieraz itzuli dira. Euskal Herriko kondairak, historia eta ohiturak ere eraman ditu liburu orrialdeetara.



Mila kolore, mila aurpegi

Inauteriak jada ospatu doguz Txorierriko herri gehienetan, baina otsailaren 28an eta 29an Sondikakoen txandea da. Zalantza barik, bailarako hitzordu garrantzitsuetako bat da, eta bertan jentetza handia batzea espero da, aurreko urteetan moduan. Sondikako Inauterien Alkarteak herritar guztientzako ekitaldiak antolatu dauz, egun bitan zehar umeez, gazteek zein helduek ondo-ondo pasau daien.

Sondikako Inauteriek nobedade handia ekarri eben igaz, izan be jai-gunean batu ohi dan oso jente-kopuru handia kontuan hartuta, karpa bi ipini ziran: bata, Iturrikosolo kalean; eta bestea, Lehendakari Agirre kalean. Azaldu ebenez, Inauteriak ordura arte tren-geltokiaren ondoko aparkalekuan egin ziran, baina, sarrera-urteera bakarra izateaz ganera, hori leku itxia zan eta, horregaitik, arrisksua izan leiteke, zerbait gertatu ezker. Aurten be karpa biak ipiniko dira. Halanda be, alkar-teak adierazo dauen moduan, joan dan urtean lagun piloa hurbildu zan Sondikaraino, eta eguraldi txarra izan ezker, karpetan ez zan pertsona guztiak hartze-ko lekuri egongo. "Eskerrak eguraldi ona egin ebana, eta espero dogu aurten be horrela izatea. Ganera, karpa handiagoak ipintzeko modurik ez dago, kaleetako garajeen sarrerea oztopatuko litzatekealako. Dana dala, guk pozik-pozik hartzen doguz Sondikara etortzen diran lagun guztiak".

Sondikako Inauterien Alkarteak aurreko urteetakoen antzeko egitaraua antolatu dau, "oso ondo funtzionatzen daben ekintzak diralako". Holan, otsailaren 28an,



Otsailaren 28a, barikua

- 16:00 Txupinazoa eta jaien hasiera.
- 17:00 Jolasak, eskolan. Gorondagane gurasoen alkarteak antolatua.
- 18:00 Umeen kalejireia: eskolatik herrira, sardinagaz eta buruhandiakaz.
- 18:30 "Xaibor" diskofestea, umeentzat.
- 19:00 Txanpi-potea, txosnetan.
- 20:00 Taberna Ibiltaria.
- 00:00 Kontzertua: Mafalda.
- 02:00 Erromeria: Bidean.
- 04:00 Dj animatzailea.

Otsailaren 29a, zapatua

- 11:00 Umeen parkea.
- 12:00 Tostada lehiaketeta.

Egitaraua



- 12:00 Kalejireia, Elaiak txistu taldeagaz eta Elutxa txarangeagaz.
- 13:30 Patata tortilla txapelketeta.

- 16:00 Kafea eta dantzea, Nagusien Etxean.
- 18:00 Umeen desfilea.
- 18:30 Elutxa txarangea, herritik.
- 19:30 Umeen moztorro lehiaketaren sariak banatzea.
- 19:30 Txokolatadea.
- 20:30 Kalejireia, Hortzmuga taldeagaz.
- 21:30 Sardinaren hiletea.
- 21:30 Tostada, patata tortilla eta erakusleho lehiaketen sariak banatzea.
- 21:30 Nagusien moztorro lehiaketaren sariak banatzea.
- 22:30 Kontzertua: Perro Loco.
- 00:00 Erromeria: Gora Herria.
- 03:00 Dj animatzailea.

barikuan, txupinazoa botako da arrastiko 4etan eta sondikoztarrek ondoetorria egingo deustie mila arpegiko eta koloreko jaiari. Umeentzako jolasak izango dira eskolan; eta ondoren, umeen kalejireia eta Xaiborren diskofestea. "Nobedade moduan, Taberna Ibiltaria ibiliko da txosnetan gaueko 11ak arte, helduak be hara erakartzeko. Bestalde, Mafalda taldeak kontzertua eskainiko dau eta uste dogu jente asko erakarriko dauela". Barikuko moztorroaren gaia "musikariak" izango da, eta Facebooken bidez erabagi da. "Beti egiten dogu holan: alkarteak lau gai proposatzen ditu eta jentek gehien gustetan jakona botatzen dau".

Alkartearen berbetan, ez da beharrezkoa zapaturako ekitaldi berezirik antolatzea, "berez jentetza handia batzen dauen eguna dalako". Ekintzak goiz-goizetik hasiko dira. Umeen parkea egongo da, kalejireia eta tostada eta patata tortilla txapelketak. Zapatuko moztorroaren gaia librea izango da, eta ekintza honek egongo dira arratsaldean, besteak beste: umeen desfilea, txokolatadea, kalejireia eta sardinaren hiletea. "Kalejireia oso ekitaldi berezia da guretzat, bertan herriko talderik gehienek hartzen dabelako parte, bakotxak bere moztorroagaz eta karrozeagaz. Aurten Hortzmuga taldea eukiko dogu kalejireia zein sardinaren hiletea girotzen eta oso ikuskizun polita izango da". Perro Loco rock taldea agertokira igoko da gaueko 10,30etan eta Gora Herria taldeak erromeria eskainiko dau ostean. Sondikako kaleak kolorez eta mota askoko pertsonaiaz beteko dira beste behin; goazen ospatzera, beraz!



ATE IREKIAK
UNIBERTSITATE GRADUAK
2020/2021 ikasturtea

LEARNING FROM REALITY



INGENIARITZA

BILBO (BBF) MARTXOAK 11 (INGENIARITZA MEKATRONIKOA)
ASTEAZKENA 18:00
ARRASATE MARTXOAK 14
LARUNBATA 10:30
GOIERRI MARTXOAK 26
OSTEGUNA 17:30
ORONA IDEO APIRILAK 2
OSTEGUNA 17:30

BILBO (BBF) MAIATZAK 6 (INGENIARITZA MEKATRONIKOA)
ASTEAZKENA 18:00
ORONA IDEO MAIATZAK 16
LARUNBATA 10:30
ARRASATE MAIATZAK 21
OSTEGUNA 17:30

Etorriko zarela jakinarazil
www.mondragon.edu/prest

Ermitak iluntasunean

a: Alex Albarrán



San Antolin



San Migel



Santimami

Alex Albarrán zamudioztarrak herriko bost ermitak fotografiatu ditu gauez, eta egindako argazki ederrak ekarri ditu orrialde hauetara irakurleekin partekatze-ko. "Hainbat lekutan ikusi ditut ermiten argazkiak baina guztiak egunez aterata zeuden eta horregatik animatu nintzen gauez egitera, ea zelan irtengo ziren. Lehenengo ermita fotografiatu, eta emaitza polita zela ikusi nuen: aurrera jarraitzeko akuilua izan zen hori", azaldu digu. Proiektuak denbora eskatu dio. Horrela, bada, irailaren amaieran hasi, eta azaroaren amaieran amaitu zuen. "Alde batetik, astia izan behar da; eta beste alde batetik, eguraldiaren menpe zaude: hotza, euria... Gainera, argazkiren bat errepikatu behar izan nuen, ordenagailuan ikusi nuenean konturatu nintzelako behar bada beste teknika bat erabili hobeto gelditu zitekeela". Material egokia izatea ere inportantea da, eta gertalekua presarik gabe eta azken xehetasuna ere zainduta atontzea. "Argiztapen egokia lortzeko, haririk gabeko flash-kliskagailuak erabili nituen, linternak...". Alabaina, tamalez, argazkia ez da beti lehen saiakeran ateratzen. "Saiakuntza eta akatsa ezinbestekoak dira hobetzeko eta ikasteko".

Albarrán aire girotuko teknikaria da eta argazkigintzarako zaletasuna lankide batek piztu zion orain dela urte asko. "Berak egindako lanak erakusten zizkidan, eta, jakin-minaren eraginez, han eta hemen arakatzen joan nintzen, kuxkuxeatzen, ikasten, materiala erosten...". IZAE Zamudioko argazki-elkarteko kidea da gaur egun. "Argazkigintza poztasun handia dakarren zaletasuna da, ekinaren ekinez emaitzak ikusten direlako, nahiz eta batzuetan nahi dena lortzen ez den". Aipatu digutenez, denetariko argazkiak egiten ditu. "Paisaia gehiago, agian. Erretratuak ere egiten ditut: gustatzen zaizkit, beste argiztapen-teknika batzuk erabili behar direlako. Rally-zalea ere banaiz, eta argazki-kamara probetara eraman ohi dut. Era berean, argazki artistikoagoak egiten saiatzen naiz, eta promoziorako argazkiak egin dizkiot Broken Izotz taldeari". Hurrengo proiektua buruan du dagoneko eta erretratua izango du ardatzat.



San Bartolome



San Tomas

t/a: Gaizka Eguzkitza

Adimena Agertokian proiektua Baserri Antzokia Fundazioak garatu du otsailaren 12, 13, 19, eta 20an, Laboral Kutxa eta Bizkaiko Zientzia eta Teknologia Parkearen laguntzarekin. Proiektuak aukera eman die Parkeko enpresei nahiz ikertzaileei oholtzan euren ikerketak zein ekoizpenak aurkezteko. Hitzaldi laburrak izan dira, 15-20 minutukoak eta, ondoren, entzuleek galderak egin ahal izan dituzte. Giroa lasaia eta intimoa izan da, bertan bildu direnek, hizlariet gain, kafeaz eta mokadu batekin disfrutatu dutelako eta, amaieran, partaideen artean sariak banatu dira.

Guztira 18 lagun izan dira hitzaldietan parte hartu dutenak: Biotalde enpresako Nahikari Alberdi, Mari Carmen Aretxalde eta Mireya Alvarez; Iturbaltza ustiattegiko Unai Beitia; Datik enpresako Iñigo Etxabe; Barante enpresako Lola Vivanco; Euskal Herriko Unibertsitateko (UPV/EHU) Maite Maguregui, Miren Basaras, Jon Saenz eta Harkaitz Eguiraun; Biolan-Osasen enpresako Larraitx Añorga; Gaiker enpresako Maria Genua; Cicbiogune enpresako Gonzalo Jimenez eta Arkaitz Carracedo; Neiker enpresako Carlos Garbisu; Txorierrri Ikastegiko eta Azti enpresetako ordezkariak... Batzuek euren enpresaren proiekturen baten berri eman zuten, eta beste batzuek gaur egun pil-pilean dauden gaiak jorratu zituzten: adimen artifiziala, koronabirusa, minbizia, proteinen ingenieritza, in vitro ikerketak, nazioarteko bekak, enpresa txiki eta ertainak eta *start up*-ak...

Zientzia, patxadaz

Baserri Antzokia Bizkaiko Zientzia eta Teknologia Parkean dago kokatuta, Derion. Inguruan, hainbat enpresa eta ia 3.000 ikertzaile daude eta horiei hitza eman diete Baserri Antzokiko Fundazioko arduradunek, Adimena Agertokian proiektuari esker. Otsailean, hainbat hitzaldi entzun ahal izan ditugu bertan, patxadaz, edaria eta jatekoa, dohai-nik, hartu dugun bitartean.

"Zientziak beti izan du garrantzi handia, baina gaur egun are handiagoa du, edozein gizarte aurreraturen motorra eta mamia delako. Beraz, proiektu honetan bai oinarrizko ikerketa eta bai ikerketa aplikatua hartu dira kontuan. Horretaz gain, ezin dugu ahaztu zientziak garapen pertsonalean erabateko eragina duela, eta horregatik, leku gehienetan ez bezala, Baserri Antzokian modu ludiko, lasai eta patxadatsuan eman nahi ditugu ezagutzera zientziaren onurak eta zientzialarien

aurpegiak", esan dute Baserri Antzokiko arduradunek.

Egitasmoa batez ere Bizkaiko Zientzia eta Teknologia Parkeari eta UPV/EHUri egon da zuzenduta. Dena dela, ahalik eta jende gehien proiektuaren partaide egitea ere helburu garrantzitsua da. Baserri Antzokiko Patronatuak Parkeko enpresetako ikerketan nahiz garapenean aritzen diren langileei eta enpresei eurei eskaintza zuzena egin die, oholtzan euren lan, proiektu edota jakituria azal dezaten.

*Pil-pilean dauden
gaiak jorratu dira:
koronabirusa, adimen
artifiziala, minbizia,
ETEak eta start up-ak...*

*"Gurean modu lasaian
eman nahi ditugu
ezagutzera zientziaren
onurak eta
zientzialarien aurpegiak"*



Eta aukera berbera eman die Parkean lan egin nahi duten talentuei ere. Era berean, proiektuari aberastasun handiago emateko helburuz, UPV/EHU'n ikerketan diharduten ikertzaileei ere egin zaie parte hartzeko gonbidapena, "denon ekarpenarekin proiektua askoz aberatsagoa eta erakargarriagoa izango baita".

Ospea, zientzialariei

Adimena Agertokian proiektuaren antolatzaileek aitortpena eman nahi izan die ikertzaileei eta, era berean, gizarteari aditzera eman ikerketaren garrantzia. Horregatik, proiektua bideratuta dago, alde batetik gizartearen aurrean gure talentu hauek azalaraztera, eta bestetik, euren autoestimua eta harrotasuna handitzera. Azken finean, gaur egungo gizartean duten benetako balioa erakutsi nahi izan dugu jendearen nahiz enpresen aurrean".

Baserri Antzokiak, taberna eta jatetxea izateaz gainera, gizarte-balioak ere sustatu eta zabaltu nahi ditu Fundazioaren bidez: euskara, kultura eta kasu honetan, zientzia. Eta ez ditu Txorierri eskaintzen dituen aukerak baliatu gabe utzi nahi. Izan

"Ikerlariak duten benetako balioa erakutsi nahi izan dugu jendearen nahiz enpresen aurrean"



ere, Baserri Antzokia Bizkaiko Zientzia eta Teknologia Parkearen egonda, Euskadiko gune teknologikorik handienetan eta garrantzitsuenetan, enpresa erreferenteak dauzka, Bizkaian ez ezik baita Estutu Espainiarrean eta Europan ere. Inguru hurbilean dauden enpresa motak dira, besteak beste, aeronautika, automozioa, elektronikak, energia eta ingurumena, ikerketa eta garapena, ingeniariak, medikuntza eta biozientziak, zerbitzu aurreratuak, zerbitzu orokorrak eta informazio-teknologiak. Guztira 10.000 langile inguru dabilta Par-

kean eta eurretari 2.900 baino gehiagok ikerketa eta garapenean dihardu.

"Horregatik guztia eragatik uste dugu Baserri Antzokiak azpiegitura ezin hobea eskaintzen duela proiektu hau aurrera eramateko, Txorierri erdian gaudelako eta hemen 37.000 langile eta 2.300 enpresa baino gehiago daudelako". Antolatzaileak pozik agertu dira proiektuaren emaitzarekin. Adimena agertokia azaleratu da eta guztiok izan dugu hori barneratzeko aukera, kafetxo bat hartuaz, patxadaz.



NEURTU ZURE ERAKUNDEAREN HIZKUNTZA EGOERA
6 PAUSOTAN
ZUK ZEUK, AZKAR ETA ERRAZ

BETE ZURE AUTO-DIAGNOSTIKOA

bai euskarari

baieuskarari.eus
/baieuskarariziurtagiria
@baieuskarari

Ziurtagiriaren Elkarteak **Lan eta bizi euskaraz**

SARRIKOLA OGITEGIA

Euskal pastela
Baserriko ogia
Bizkotxoak
Hainbat tarta

Sarrikola, z/g Larrabetzu
Tel.: 94 455 83 37
619 78 58 84

t: Itxaso Marina / a: L.V.

Nola hasi zinen borroka-arteak egiten?

Hamaika urte nituela hasi nintzen, 90. urtean. Taekwondoa eta judoa barik, ni borroka-arte osoagoek erakartzen ninduten eta, kick boxinga egiteko, izena eman nuen Mungiako gimnasio bakarrean; Van Damme-ren eta gainerakoen pelikulen eraginez, beharbada. Kick boxingaz gainera, irakasleak orduan egiten zebilen borroka-arteak irakasten zigun, baita defentsa pertsonala ere. Izugarri gustatzen zitzaidan eta gogoz entrenatzen nintzen, harik eta 98. urtean gerriko beltza lortzeko azterketa egin nuen arte. Hurrengo urtean irakaslearen laguntzaile ibili nintzen, eta hark eskola emateari utzi zionean, neuk hartu nituen beraren taldeak.

Krav maga ere egiten eta irakasten duzu.

Madrilera joan behar izan nuen irakasle-ikastaroa egitera, garai hartan hemen non ikasi ez zegoelako, eta Israelgo irakasleekin ibili ginen. Egia esan, ikastaroa arte-borrokak aurretik ezagutzen genituen lagunontzat zen, eta israeldarregandik ikasi genuen batez ere lana nola egiten zuten. Askok entrenatu eta sufritu nuen...

Sufritu?

Bai. Krav maga borroka-sistema bat da, eta israeldarrek ataka estuan jarri gintuzten zenbat pairatzeko gauza ginen

*"Beti saiatzen
naiz neure
burua hezten
eta denetarik
ikasten"*

jakiteko. Gure burua erasotzaile baten aurrean defendatu behar izan genuen; gero, erasotzaile bi; hiruren aurrean... Oso-oso gogorrak izan ziren; azken batean, haiek ohituta daude horrela lan egitera... Dena dela, kontuan hartu behar da irakaslea izateko ikastaro batez ari garela; ohiko eskolak ez dira inola ere horrelakoak.

Eta boxeoa frantsesa, zer da?

Kick boxingaren antzekoa da, baina "dotoreagoa", nolabait esatearren. Arau batzuk aldatzen dira: esaterako, kick bo-

"Guztiok izan beharko gen pertsonalaren oinarritz

LUIS VAZQUEZ | borroka-arten irakaslea

Derioztarra oso gaztetxoa zela hasi zen borroka-arten munduan, eta hiru hamarkadatan egindako lan gogorak hainbat titulu eta aintzatespen ekarri dizkio. Hizpide bere grina izan dugu, nola ez ba!



xigean ostikadak tibiaz eman daitezke; hala ere, boxeoa frantsesean zapataren puntaz jo behar da. Puntak hori gogortuta dago. Diziplina hau Galiziako mutil baten bidez ezagutu nuen eta berarekin ikasi nuen, Frantziako federazioak Estatuan duen irakasle baimendu bakarra baita: hona gonbidatu dut ikastaroak ematera eta neu ere askotan joan naiz kanpora gehiago ikastera.

Izan ere, ikasteko grina handia duzu.

Bai, beti saiatzen naiz neure burua hezten eta denetarik ikasten. Horri lotuta, asko bidaiatzen dut: Italiara, Portugalera, Estatu Batuetara... Onenekin ikastera. Oporretara joaten naizenean ere begiratzen dut leku horretan nork zer ikastaro emango duen.

Kanpotik ere etortzen dira zurekin ikastera.

Besteak beste, Holandako Italiako, Alemaniako eta Norvegiako lagunak etorri dira nirekin entrenatzera. Ona da kan-

uke defentsa o ezagutza"

poan ere ezaguna izatea. Bestalde, federazioko beste kide birekin batera, birritan izan naiz Erroman defentsa pertsonaleko ikastaroa ematen. Esperientzia polita da oso, beste diziplina batzuk ezagutzeaz gainera, erabat pozgarria delako besteek norberaren lana kontuan hartzea.

Nolako ikastaroak ematen dituzu hemen?

Defentsa pertsonala irakasten diet sei urtetik gorako umeei Derioko eskolan, eta nagusientzako saioak BC Fun Fitness Gym gimnasioan egiten ditugu, Zamudion. Azken saio horietan kick boxinga, boxeo frantsesa eta krav maga uztartzen ditugu. Gainera, gimnasio edo zentro batek eskatuz gero, defentsa pertsonaleko ikastaroak antolatzen ditut emakumeentzat.

Edonork eman dezake izena saio horietan?

Bai, bost urtetik gorako edozeinek; eta berdin dio sasoiari dauden edo ez, denboraren poderioz lortuko dutelako. Are gehiago, oso inportantea da sasoiaren egotea: geure burua nola defendatu jakin arren, fisikoki zein mentalki ondo ez bagaude, gutxi egin dezakegu benetako eraso baten aurrean.

Ezinbestekoa da gaur egun gure burua defendatzen jakitea?

Egungo panorama ikusita, bai. Nire ustez, guztiok ikasi beharko genuke borroka-arteren bat, edo, behintzat, defentsa pertsonalaren oinarritzko ezagutza izan. Baita prebentziorako oinarritzko ezagutza ere, ez baitugu zertan hasi elkar joka: batzuetan egoera bat edo beste prebenitu dezakegu, zerbait larriagoa gerta ez dadin.

Sariak jaso dituzu borroka-arteetan egindako ibilbidea dela eta. Harro?

Golardeok-eta poztan naute, jakina! Eta harro nago, 11 urte nituenetik egin dudana aintzat hartzen delako. Baina, egia esan, ez diet sariei inportantzia handirik ematen; ni jendeak ondo pasatzeak eta ikasteak asetzen nau benetan. Saria ikasleek jasotzen dutenean gehiago poztan naiz.

Dena dela, gogor entrenatu behar izan zara tituluak lortzeko.



Ordu asko egin ditut entrenatzen: ordu bi egunero, eta batzuetan, lau ere bai. Entrenamenduen ostean eskola ere eman dut askotan, arratsaldeko 4etatik gaueko 10ak arte. Zapatuetan eta domeketan ere entrenatzen naiz.

Zerk erakartzen zaitu hainbeste?

Orokorrean borroka-arte guztiak gustatzen zaizkit. Haien filosofiak erakartzen nau, besteei adierazten diegun begiruneak, ariketak, nire buruarengan dudak konfiantzak, nire burua defendatzen jakiteak... Borroka-arteek energia ematen didate: entrenatzen ez naizen egunean txarto sentitzen naiz.

Txapelketa gutxitan hartu duzu parte, ordea.

Nahiago dut ikasleak hezi, eta txapelketetara beraiek joatea. Nolanahi ere, iaz lehiatu nintzen maisuen kategorian. Ez nuen nahi, baina aurreko urteotan lagun batzuek alamaena eman zidaten txapelketaren batean parte hartzeko eta azkenean konbentzitu ninduten. Irabazi egin nuen.

Lehiatu zarenean Estatuko txapelketetan izan da. Nolako maila dago?

Oso maila ona dago borroka-arte guztietan; eta batez ere Euskadin eta boxeoan.

Noiz arte egin daitezke borroka-arteak?

Gorputzak nahi duen arte. Nire ikasleetariko batek 60 urte ditu eta 20 urteko gazte asko baino hobeto dago. Bestetik, iaz 66 urteko gizon bat eraman nuen lehiatzera eta bigarren geratu zen.

Asmorik duzu etorkizunari begira?

Entrenatzen jarraitzea eta ikasleei helburuak lortzen laguntzea: tituluak irabaztea izan daiteke, defentsa pertsonala ikastea edo bakarrik ariketa fisikoa egitea. Batzuk Espainiako txapeldunak eta txapeldunordeak izan dira eta nahiko motibatuta daude. Izan ere, oso esperientzia erakargarriak dira, ikasitakoa praktikan ipintzen delako eta horrek ondo sentiarazten zaituelako... Sentsazio asko izaten dira.

Curriculum

–Borroka-arteetako Espainiako txapelduna: defentsa pertsonala eta maisuen kategoria.

–OEKAMeko krav magako arduradun nazionala.

–CESBFeko savate defentsako arduradun nazionala (boxeo frantsesa).

–Borroka-arteetako eta boxeo frantseseko Euskadiko delegatua.

–Nazioarteko irakaslea.

–Krav maga: gerriko beltza, 4. dan.

–Kick boxing: gerriko beltza, 4. dan.

–MMAren lehen mailako irakasle nazionala.

–Boxeo frantsesa: eskularru horia.

–Borroka-artearen merezimendu domina, 2019.

–Borroka-arteak zabaltzeko lanaren urrezko domina, 2017.

–Gonbidatua, nazioarteko seminarioetan.

Einer Larrabeiti Zaratek norbere buruarekin eta gainerakoekin dugun jokabideari buruz hausnartzen du. Egunerokotasunean aurki ditzakegun egoera eta sententzioak ardatz hartuta, hainbat gairen inguruan mintzatuko da sail honetan.

Jo... Jaiobarri emozionalak

"Zerbaitek jota hil beharko dogu", dinot nik. Ze uste dot gauza garrantzitsuagoak dagozala gorputzera zein toxiko sartzen dodan konturatzea baino; ariketa fisikorako denpora erreserbatzen ibiltzea baino, edo nire pentsamen-
duak zein motatakoak diran behatzea baino. Puntu eta amaitu.

t: Einer Larrabeiti

Gure gizartea gerran bizi omen da. Eta harro esaten dau gainera: "Borrokatu egin behar da!". Badirudi jarrera hau edo gerlari etiketa hau jakean ez badaroazu, ez zagozala izarrik. Ez dozuzala Sistemak sortutako zailtasunak benetan bizi. Halan, hauze da gure egunerokotasuna: norbaiten eta zerbaiten kontra ibiltzea eta, halaber, defentsiban aritzea. Eta ez "goikoen" kontra bakarrik. Geure artean be bai, automatikoki. Adibiderik argienak norberak bere inguruan aurkituko dauazanak dira, baina hona hemen batzuk: harek ni haserratuaz egin nau (magia bidez beharbada?); arropa labur eta estua badaroazu, ez zara feminista; politikoen egozentrismoaren aurrean biziki haserraten ez bazara, ez daukazu ideiarik be; haragirik jan gura ez dozunez, desbardin ikusten zaitut; niretzako hor ez bazagoz, beti zugandik urruntzen naz.

Halakoak ez dira normalean horren zuzen esaten, baina apaingarriak erabili arren (gure burua zurrizteko), horreexek dira mezuak. Gainera, horretariko edozein adibideri heldu-ahotsa jartzen deusagunez, persona arrazionalak garala sinisten dogu. Baina, hemen garrantzitsua edukia da. Hobeto ikusteko, jarri ume-ahotsa

baieztapen bakoitxari. Badirudi, ume kexati baten eskakizunak dirala, ezta? Gauzak norbere gustura egon daitezkan. Inposizioak "goikoen" egiten dituenan kexatu egiten gara, geuk be gure jarrerakaz aldamenekoari bardina transmititzen deusagun bitartean.

Norbere barruan zer gertatzen dan ikustea baino erosoago egin jaku beti kanpora begira bizitzea; sufrimendua norberak ereiten eta indartzen dauala konturatu barik. Halan be, gure barruko ahotsa ezin da isildu. Ahalegindu egin dira kanpotik be, medikamentu eta drogen bidez gure gorputzak eta kontzientziak isilarazten, anestesiatuz. Alabaina,

arazoak ez konpontzeaz gain, ez da lortu gure sena amatatzea. Ez da arrazionala, ez eta ukigarria be. Ostera, ondo sentitzeko behar eta egin gura doguna errealidade bihurtzeko dago hor, gudan eta guretzako. Beti.

Frogatu egizu: senetik abiatuta ezagutu eta zaindu zeure pentsetako era, gorputza eta bihotza. Lehenengo kanpokoagaz hastera ez da ez erantzulea, ezta eragin-korra be. Gero bai, lan egin hobetu gura dozuzan egoera eta baldintzen alde. Era horretara, borrokatu beharrean sortu egizu. Zeozertarako bizi gara. Puntu eta jarrai.



RADIO TAXI FEMADE *Zure taxi, Teorierikoa*
Zamudio - Derio - Sondika - Lezama - Larrabetzu - Loiu
24h **94 480 09 09**
ERRESERBAK:
www.taxisaeropuertobilbao.com

DESKARGATU APP-A

TAXI FEMADE

Enaitz
TABERNA
Ogitartekoak
Anoak
Plater konbinatuak
94 455 42 15
Garaioltza, 74
48196 Lezama

Erpurua eta txikilina

t: Juan Luis Goikoetxea / a: www.humintell.com

Erpurua –orkolua Zamudion– gure eskuko hatz lodia da. Telefono mugikorretako emotikonoen artean agertzen da irabazle zeinua adierazteko; auto-stope-rako ere erabiltzen dugu. Txikilina, oster, atzamar txikia da. Gutariko askok kafea kikan edaterakoan, hatz txikia luze-luze ipintzen dugu.

Erpurua sendoa denez, gai da beste lau hatzen aurrez-aur jartzeko. Beraz, erpurua hizkuntza balitz, ingelesa, espainola edo frantsesa sinbolizatuko luke. Txikilina, berriz, hizkuntzaren sinbolotzat hartuta, izango litzateke euskara, Islandiako berbeta edo Norvegiakoa.

Euskarak estatutik ez daukanez –Pako Aristiren hitzak–, estatuaz baino Euskal Herriaz berba egiten dugu. Kirmen Uribek dioenez, Euskal Herria euskaraz mintzo den pertsona multzoa da, lekua baino gehiago. Orduan, gure arazoa da, estatua daukatenek hizkuntza nazionala deitzen diotela beraien berbeta handi edo txikiari, eta guk hizkuntza txikia beti euskarari.

Testuinguru horretan, gure idazleak sarri mintzatzen dira euskararen txikitasunaz, minorizatua izateaz. Karnele Jaiok

*Erpurua hizkuntza
balitz, ingelesa,
espainola edo frantsesa
sinbolizatuko luke.
Txikilina, berriz, izango
litzateke euskara*

idazten du Bernardo Atxagak sagu txiki batekin konparatzen duela hizkuntza gutxituko idazlea, ate erraldoirik zabaldu gabe areto handietan sartzeko gai den saguaz.

Txikiari Txorierrin, Mungialdean nahiz Arratian txikerra esaten zaio; egurra txikertu egiten da, eta pezeta-aroan, txakur handiak eta txakur txikerrak erabiltzen ziren moneta moduan, eta herri kantutegian etxeko ume txikerrari “txikerrentxu” kantatzen zaio.

Erpurua indartsua da. Hala ere, haur txiker asko ikusi ditugu atzamar lodi hori ahoan dela lolo egiten. Hatz txikerra, oster, txikitasunean gozo-gozoa da. Zeozergatik deitzen dira txikilin “Galletas chilín” ospetsuak.



**Baserritarren Alkartea
Lezama S. Coop.**

Aretxalde, 21 BIS
48196 LEZAMA
☎ 94 455 60 16
e-mail: lezama@fcae.org
Bazkideak: 144

**Pentsu
naturalak**

**BASALBEITIKO
TXAKOLINA**

Bizkako Txakolina
Denbora eta denbora

**Goitortza auzoa, 37
(LEZAMA)
94 455 61 46**

**PELUKERIA
ESTETIKA
LARRABETZU**

Anguleri nº 2 Bajo - 48195 LARRABETZU
Tel. 944 558 144

LEJARRENE JATETXEA
Garaiortza auzoa, 12 • LEZAMA • T: 94 455 65 46



**TABERNA
GAZTEI**

Eguneko menuak
Ospakizunak

Aretxalde, 141 - 48196 LEZAMA
944554422 - gazteditaberna@gmail.com



Patata- eta hirugihar-pastela

t: sukaldean.com / a: recetasgartis.net

Osagaiak:

- 4 patata (xerra mehetan ebagiak)
- 20 hirugihar-xerra (ketuak)
- Idiazabalgo gaztaia, arraspatua (ez erabat ondua)
- Gurin-puska eder bat
- Gatza eta piperbeltza

Prestetako area:

Pastela egiteko, lurrezko kazola biribil bat edo pastelak egiteko molde bat erabili geinke. Moldea gurinaz

igurtziko dogu eta hirugihar-xerrak ipini-ko doguz. Xerren muturra kanpora aterako dogu, gero pastela itxi ahal izateko. Osagaiak erabilia geruzak egingo doguz: patata, gaztai apur bat, gurin-puskatxo batzuk, hirugiharra... Azken geruzak patatazkoa izan behar dau. Hirugihar-xerren muturrakaz pastela itxiko dogu. Trinko-trinko gelditu behar dau. Aluminio-papez estaliko dogu eta laban 25 minutuan izango dogu 200 graduan. Jalgitzen itxiko dogu eta epeltzen danean, xerra loditan ebagiko dogu eta entsalada berdeak lagunduta aterako dogu mahaira.



Brokoli-mokadutxoak

t/a: eroski.es

Osagaiak (lau lagunentzat):

- 400 g brokoli
- Arrautza 2
- Tipula bat
- Porru bat
- 75 g Emmental gaztai
- 30 g Parmako gaztai
- 3 koilaratxo perrexil
- Oliba-orioa
- Gatza
- Ogi birrindua

Prestetako area:

Perrexila txikituko dogu eta gaztai biak birrinduko doguz. Osagai guztiak ontzi baten nahasiko doguz, ore uniformea lortu arte. Hozkailuan ordubetea izango dogu. Oreagaz bola txikiak egingo doguz eta zilindro-itxurea emongo deutsegu. Ogi birrindutik pasatuko doguz eta laban 200 graduan izango doguz 20 minutuan edo gorritzen diran arte.

GAMINIZ
JATETXEA



Tel/Fax: 944 317 025
email: gaminiz@gaminiz.com

Ibaizabal 212, Parke Teknologikoa
48170 Zamudio - Bizkaia
GPS: 2°51'41" W 43°17'37" N

www.gaminiz.com

ELORRIETA
INSTALACIONES

ETXE- ETA INDUSTRIA-ELEKTRIZITATEA

Uribe kalea, 12 behea Derio 48160
94 454 03 86

639 57 98 48 – 639 58 25 47



Jata kalea, 2 – DERIO
Tel.: 944 54 29 56

ZAMUDIO-DERIOKO LURLANGILEEN ETXEA

Santi Mami buzoa, 1
Tel.: 94 454 10 06
Faxa: 94 454 12 15
48170 Zamudio (Bizkaia)



SANTI MAMI
ALBAILARITZA
Nerea Pedrosa Cto. 517
COOP. CANADERA ZAMUDIO DERIO
Tel.: 94 454 13 77 - 689 04 31 15
Faxa: 94 454 12 15

Umeen txokoa: bost desberdintasunak

Ezetz bost desberdintasunak topatu irudi bien artean. Bukatzen duzunean, irudiak margotu eta moztu ahal dituzu.
a: www.onlykidsonly.com



Gomendioak

LITERATURA: NAGUSIAK

- Amua (Elkar poesia), Aritz Gorrotxategi.
- Kapitalismoa eta emakumeen aurkako indarkeria. Iraganeko eta gaur egungo sorgin-ehizak (Katakrak), Silvia Federici.
- Isiltasun urte luzeak (Alberdania), Francisco Castro.
- Lardaska (Txalaparta), Patricia Highsmith. Itzultzailea: Josu Barambones Zubiria

LITERATURA: GAZTEAK

- Ovimamiak eta papaguaraiak (Mezulari) Gracia Iglesias / Susana Rosique (il.)
- Euli fiririren festa (Pamiela - Kalandraka), Eva Mejuto, Sergio Mora.
- Erotik (Denonartean), Antton Kazabon, Jokin Mitxelena (il.).
- Bazen arkumetxo bat izatez txerria zena (Tarttalo), Milja Praagman eta Pim Lammers

Sudokua

			1	7		2		5
								9
1	7							
		4		2		1	9	
	6		5					
		2	9	8			7	
	9		2	1			5	
				6				
2								4

4	9	3	5	6	7	1	8	2
1	2	6	9	4	8	5	3	7
7	5	8	3	1	2	9	6	4
9	7	5	4	8	6	2	1	3
2	8	4	1	3	5	7	9	6
3	6	1	7	2	9	4	5	8
8	4	9	2	5	3	6	7	1
6	1	7	8	9	4	3	2	5
5	3	2	6	7	1	8	4	9

RPM
MAYORISTAS INFORMÁTICOS
ENPRESETARAKO INFORMATIKA
SAREEN MANTENIMENDUA
ZERBITZU TEKNIKOA
Avda. Pinoa 2C Nave 5 - 48170 - Zamudio
Tel: 944521544 - <http://www.rpmmayoristas.com>

astikenemotor
www.ASTIKENEMOTOR.com
DERIO - 946 451 781

Bizkargi
- Plater konbinatuak
- Ogitaratekoak
- Kaxolak
BIZKARGI KAFETEGIA
Euskal Herria Kalea
48160 - Derio (Bizkaia)
94 454 16 55

Azokak

Sondika

- > Nekazamudio. Martxoaren 7an, 11:00etan, Kultura Etxean.

Larrabetzu

- > Txakolinaren Eguna, martxoaren 29an.

Erakusketak

Sondika

- > Ouka Leleren lanak. Martxoaren 6tik 30era, liburutegian.

Hitzaldiak

Sondika

- > Alzheimerra. Martxoaren 26an, 18:00etan, Kultur Etxean.

Ikastaroak

Sondika

- > Udal ikastaroetan izena ematea: martxoaren 9tik 13ra, liburutegian.

Zamudio

- > Menopausia. Martxoaren 7an, 10:30ean, Zamudiotarren.
- > Udal ikastaroetan izena emateko azken eguna: martxoaren 13a.
- > Zen meditazioa. Martxoaren 19an, 19:00etan, eskolan.

Larrabetzu

- > Ikastaroetan baja emateko epea: martxoaren 2tik 13ra.

Ikuskizunak

Sondika

- > Zinegoak festibaleko film laburrak. Martxoaren 14an, 20:00etan, Kultur Etxean.

Larrabetzu

- > Bertso-saioa. Martxoaren 13an.
- > ETaren agiri bulegoa antzezlanak, Gilkitxaro taldearen eskutik. Martxoaren 29an, 18:30ean, Hori Bai gaztetxean.

Irteerak

Loiu

- > Larrondoko mendi martxa. Martxoaren 29an, Zentro Zibikoan.

Sondika

- > Zugaztieta. Martxoaren 15ean, 09:00etan; izena ematea: martxoaren 11ra arte, liburutegian. Gurasoen elkar-teak eta Udalak antolatua.

Derio

- > Nerbioiko ur-jauzia. Martxoaren 15ean, 08:30ean, kiroldegian. Untza mendi taldeak eta udalak antolatua.
- > Eskoriatza – Oñati, Eskoriatza – San Prudencio. Martxoaren 22an, 08:30ean, Nagusien Etxean. Untza mendi taldeak antolatua.

Zamudio

- > Gipuzkoa. Martxoaren 29an, 08:00etan. Arroeta mendi taldeak antolatua.

Lezama

- > Arranoaitz. Martxoaren 7an, 08:30ean, Herriko Plazan. Gailur mendi taldeak antolatua.
- > Zugarramurdi. Martxoaren 15ean, 08:30ean, eskolan. Gailur mendi taldeak antolatua.
- > Gredoseko mendilerroa. Martxoaren 18tik 22ra (martxoaren 18an, 16:00etan, Herriko Plazan). Gailur mendi taldeak antolatua.

Kirolak

Zamudio

- > 2020 Jiu Jitsu Oso Duro txapelketa irekia. Martxoaren 1ean, 10:00etan, kiroldegian.
- > San Jose eguneko plater-tiroko saioa. Martxoaren 21ean, 10:00etan, Teknologia Parkeko tiro-zelaian.

Lezama

- > III. Mendiko Bizikletaren Topaketa. Martxoaren 7an, 17:00etan, Kurtze baselizan. Zorribikek, Gela Pedagogikoak eta udalak antolatua.

Larrabetzu

- > Binakako Promozio Txapelketaren Finalerdiak: Bengoetxea VI – Larunbe vs Arteaga II – Aretxabaleta. Otsailaren 28an, 20:00etan, frontoian.



Musika

Sondika

- > Musika Kalean: Sambalu perkusio-taldea. Martxoaren 7an, 20:30etik 22:30era.

Larrabetzu

- > XLI. Udaberriko Kontzertuak. Martxoaren 13an, 20:00etan, Andra Mari elizan.

Bestelakoak

Zamudio

- > Irakurri, Gozatu eta Oparitu kanpaina, martxoaren 16tik maiatzaren 31ra arte.
- > Adintsuen Taldearen bazkaria. Martxoaren 26an eta 27an, 16:30ean, Adintsuen Etxean.
- > Uda Gaztean izena emateko epea: martxoaren 27tik apirilaren 5era.

Lezama

- > Zuhaitz Eguna eta Sasimartxoak. Martxoaren 1ean, 11:00etan, Kurtze ermitaren ondoko landetan.

Larrabetzu

- > Udaberriko txangoetan izena emateko epea: martxoaren 23tik 27ra.

aldeko
hortz klinika
Tel.: 94 454 15 87

Anuska Prieto Aguilar
Odontologoa

Unbe 7, behea
48160 DERIO (Bizkaia)

–Especialitate guztiak
zentro bakar batean
–Aurrikortua da
–Especialitateak
umeak

ADARVE KAFETEGIA

Gosariak
Plater konbinatuak
Pintxoak
GIRO ONA

Sollube, 2 DERIO Tel: 94 608 95 31

Abelino Arraindegia

Gorbea kalea, 4 - 48160 DERIO
T: 94 602 75 25-6

Konekta zaitez gurekin!



Facebook:
aikoraldizkaria



Twitter:
@Aikortxorierrri



Instagram:
aikor.aldizkaria



Webgunea:
www.aikor.eus



Zure argazkiak eta albisteak bidali




WhatsApp:
688 86 41 35



E-posta:
aikortxori@aikor.com

Parte hartu aikor.eus webgunean

Erregistratzeko, webgunearen goiko aldean ageri den SARTU botoiari klik egin



ERABILTZAILE BERRIA NAIZ ETA IZENA EMAN NAHI DUT aukeran klik egin

Kide bezala erregistratu nahi baduzu, eta zure **edukiak argitaratzeko** (argazkiak, hitzorduak, albisteak...) erabiltzaile arrunta bezala izena eman behar duzu, eta amaieran, aikortxori@aikor.com helbidera mezua bidali behar duzu zeure nahia jakinarazteko.

IRABAZTEKO XEDERIK GABEKO ERAKUNDEA

Taileri kalea 6 DERIO 94 406 36 02

ban
BASERRIANTZOKIA

Txorierriko

ABESLARI, MUSIKARI eta DANTZARIAK

Baserri Antzokiko eszenara

Urtarrilak 31 19:00

Larrabetzuko Musika Eskola
Derioko Iparralde Abesbatza
Derioko Lainomendi dantza taldea

*Kultura eta euskara
alkar hartuta*

Otsailak 28 19:30

Larrabetzuko Gaztelumendi Abesbatza
Bertoko Zamudio
Zamudioko Hiru Bat Dantza Taldea

Martxoak 27 19:30

Lezamako Ekidazu Abesbatza
Sondikako Pentagrama
Derioko Lainomendi dantza taldea
Zamudioko Kamara Korala
Taberna Ibiltaria

